

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Hator, hator

Urtea despeditu eta berriari ongi etorria emateko hitzordu pila daude / 7-8

Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuarendako Nafarroa Koloretan saria / 2-3

ZUTABEAK



JAVIER CASTEIG BARANDIARAN / 4



SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUA / 4



ANNE AZKONA UNANUA / 22

Sakanako bizikleta ibilbidearendako Mank-en 2024ko aurrekontuaren %24,55 / 5

Maialen Larrazak Sakanako Pala Txapelketako lehen mailako txapela janzteko aukera du / 20

'Mainamikirri' liburua eta "proiektu bat" aurkeztu dute Castillo Suarezek eta Haize Berriak-ek / 23



NEGUKO DENBORA-PASAK / 9-16

"Pausoak bide egokitik ematen ari garela aitortu dute"

AITOR LARRAZA ETA BEGOÑA ZESTAU SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Mank-eko lehendakariak eta Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko gizarte hezitzaileak gobernua Nafarroa Koloretan saria jaso zuten astelehenean

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Gobernu Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak sustatzen du Nafarroa Koloretan saria, aurten hirugarren edizioa izan duena. Toki erakundeei dagokien saria Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuarendako izan zen. Jasotako oroigarria non jarriko duten zehazteke dute oraindik.

Gutxitan izaten dira sariak erakundeendako.

Aitor: Sakanako Mankomunitateak bere garaian hartu zuen erabakiaren aitortza da. Gizartearekin eta kulturartekotasunarekin konprometitu zen. Horren aitortza pozgarria zaigu.

Begoña: Bai, eta zeinen ongi. 16 bat urteren buruan jaso dugu saria. Nafarroan aitzindaria izan da mankomunitatea kulturartekotasuna bulkatu nahi duen zerbitzuarekin.

Zer eman dizue halako sari batek?

B. Poza, alde batetik, noski. Nolabait aitortzen bat da: kulturaren arteko elkarbizitzaren aldeko pausoak bide egokitik edo

zuzenetik ematen ari garela. Aldi berean, erantzukizun txiki bat ere bada, bide horretatik segitu beharko dugu, bai edo bai. Jaso edo ez, horrela egingen genuke, asmo hori genuen.

Koloretako politikak egiteagatik saritu dute zerbitzua. Zer dira?

A. Sakanak daukan aniztasun hori barneratzeko garaian egon daitezkeen dinamika horiei eman diote aitortza.

B. Aurreko legegintzaldian Nafarroako Gobernu Migrazio Politikarako Departamentua sortu zen. Hortik dator Nafarroa Koloretan marka. Horrekin bitartean dena da kulturen arteko elkarbizitzan pauso baikorrak ematea, horren alde aritzea. Aitorrek ongi esan duen bezala, kolore horien baitan lantzen da Sakanan dagoen kultura aniztasuna edo bizitza bera bizitzeko modu anitza; aniztasun hori, ez? Inork ez du esan hori erraza denik. Mankomunitatearen helburua hasieratik izan da aniztasun hori kudeatzea, noski. Baina helmuga, utopia, edo ideala beti izan da kulturartekotasuna. Horrek bulkatzen gaitu egunero

pauso horiek ematera; Sakanan bizi direnen arteko elkarbizitza ahalik eta baikorrena izatea lortu nahi delako. Horregatik izena: Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua. Anitzartean esatea errazagoa da, baina abizen horrek bere esanahia du.

Utopia hori nola gauzatzen da?

B. Migrazioarekin ikustekoa daukan guztiari, ahal baldin bada, erantzuna ematen. Ezin bada, jasotzen den galdera eta eskaera hori egoki bideratu. Bestetik, prestakuntza ikastaroak antolatu. Jatorri anitzeko pertsonen arteko hurbilpena erraztuko duen proposamenei bultzada eman. Sentsibilizazio kanpainak: kulturaren aniztasunaren, kulturartekotasunaren edo giza eskubideen defentsaren inguruan, zurrumurruekin kontrako sentsibilizazio kanpainak... Herritarrek egiten dituzten proposamenei abiatuta antolatzen dira ekimen gehienak. Hori da zerbitzuaren beste funtzioa: herritarrei hitza eman, haien proposamenak jaso eta, ahal den neurrian, jatorri eta generoko talde mistoak sortu

eta planteatutako ekimen horiek aurrera eramane.

A. Zerbitzua sektore artekoa da. Hizkuntza irizpideengatik lan-keta bereziak egiten dira Euskara Batzordearekin, baita Berdintasun Zerbitzuarekin. Zeharkakotasun horretan ikusten da eremu asko hartzen dituela.

Inguruan bada Anitzartean moduko zerbitzurik?

B. Nafarroan Burlatako Udalak du Migrazio eta Aniztasun Zerbitzua. 2006ko hasiera hartan, dirulaguntzak zeudenean, orduan, bai, bazeuden. Barañain eta Erribera aldeko udal batzuek izan zuten dirulaguntzak iraun zuten bitartean. Haiek bukatzean, desagertu ziren. Mankomunitate bezala Sakanak bakarrik gelditu zen, eta Burlatako Udala.

Burlatarekin, gobernuarekin, erlazioa duzue?

B. Bai. Gu bezala Burlatako Udala Zurrumurruekin kontrako plataforman dago. Eta Nafarroako Gobernuarekin ere, jakina. Sakanako Harrera Mahaiaren bileretara beti izan da gonbidatua Migrazio Politikarako Departamentua. Haren baitan bi zerbitzu daude. Bata Ayllu, elkarbizitza, kulturartekotasuna eta arrazakeria eta xenofobiaren kontrako. Eta, bestea, errefuxiatuei ongi etorria emateko, Karibu zerbitzua. Urtero behin bildu izan da Sakanako Harrera Mahai hori eta Nafarroako Gobernua etorri izan da bileretara. Bestetik, azken lau urteetan Anitzartean dirulaguntza jaso du, bide horretan ekimen gehiago egin ahal izateko.

Kulturartekotasun zerbitzuaren zeregina nola zehazten duzue?

A. Begoñak programak aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak ere. Horien jarraipena egiten dugu. Eta jasotako babes eskariak eta eragile bakoitzaren inguruan

"HELBURUA IZAN DA ANIZTASUNA KUDEATZEA. HELMUGA KULTURARTEKOTASUNA DA"

dauden proposamenak gauzatzen saiatu; aurrekontuetan txertatzen saiatzen dira. Egiten diren lan dinamikak ere adibide ona dira; azkenean, herritarrengandik eta eragileetatik datoz, propositiboak izan haiek dinamikak zabaltzeko garaian.

Mankomunitatean Anitzartean badu bere batzordea?

B. Bai, 2016an sortu zen. Urtero hurrengo urterako programazioa eta aurrekontuak-eta, lehendabizi, batzordetik pasatzen dira. Han onartuta, batzar orokorretik pasatzen dira.

Irurtzungo alkate zinela kultura arteko elkarbizitzaren inguruko diagnostikoa eta bizikidetzaren plana egin zenituzten. Sakanarako horrelakorik aurreikusten da?

A. Ez dago mahai gainean, baina eremu zabal batean ikuspuntu hori hartzea, izan daiteke. Ikusten da herritar migranteak errealitate bat direla, eskualdean zabal-kundea dago, Nafarroa osoan bezala. Elkar ezagututa lortzen dugu ez egotea horrelako mesfidantzari eta elkarbizitza hori hobetzea. Posiblea izanen litzateke horrelako diagnostiko zabal bat egitea. Mahai gainean egon daiteke, baina hori batzordeak berak erabaki beharko luke.

Bestela, behar bada, Irurtzungo plan horretatik Sakanarako zerbaitekar daiteke?

A. Hori ziur. Irurtzungo errealitatea Altsasukoarekin edo beste herriren baten antzekoagoa izan daiteke. Baina, hala ere, han eman daitezkeen dinamikak gaitzetzeko ere lasai aski eraman daitezke.

Irurtzungo diagnosi eta plan horretako zer irakaspen ekarriko zenuke gustura asko Sakanara?

B. Horrek ekarri zuen herriko eragile, zerbitzu, norbanako, talde... Oso parte hartze zabala izan zuen. Oso parte hartzailea izango zen, propositiboak. Hainbeste proposamen egin eta jaso ziren, ezin genuela ekimen bakarrekin erantzuna eman. Hori hala, lehendabiziko aldiz kultur arteko ziklo bat antolatu genuen, nolabait hainbeste proposamenei erantzuna emateko. Halakorik

EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Begoña Zestau Baraibar eta Aitor Larraza Carrera jasotako saria eskutan dutela.

ekar liteke ibarreko beste herri batzuetara. Baina, gure lan egiteko moduari jarraituz, hori norbaitek proposatu beharko du. **Lakuntzan ere horrelako diagnosi bat egin zen. Horrelako azterketek zertan laguntzen dute?**

B. Hasteko, herritarren arteko hurbilpen fisikoa, eta pixka bat elkar ezagutzekoa. Gakoa da egiten diren proposamenei erantzuna ematen zaien edo ez. Eta, ahal den neurrian behintzat, egokiena litzateke erantzunak denboran hurbilak izatea. Gizarte mugimenduez ari gara, eta oso errealitate aldakorrek dira; malgutasun handia exijitzen duen lana da, eta diagnosian ere bai. Bestalde, Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan kultura arteko elkarbizitzaren inguruko diagnostia egin zen. Ikas komunitate guztiak parte hartu zuen. Eta hortik atera ziren proposamenei Anitzarteanetik nahi baino modu mantsoagoan eman zaie erantzuna. Baina entitate bakoitzak dauka bere errealitatea eta fronte askori erantzuna eman beharra.

Horrelakoetan ere Hezkuntza edo Osasun Departamentuarekin, edo dena delako eremuan gobernuarekin harremanetan egotea tokatuko zaizue, ezta?

A. Bai. Azkenean, Nafarroako errealitatea ezagutzen dute. Eta egoeraren arabera, nahi eta ez, arlo ekonomikoa ere badator bat.

Horregatik hainbat erakunderen arteko lanketa hori egin behar duzu, bai. Plangintza bat osatzea eta zure buruari betebeharrak jartzea garrantzitsua da. Eta beste esparru batzuetan bere iritzia emateko zailtasun handiak dituen pertsonari aukera ematea. Askotan bakoitzak ez ditu eremurik bere iritzia emateko, bere inguruko errealitatea nola ikusten duen esateko. Irurtzunen emandako aukera hori oso garrantzitsua izan zen. Bakoitzak atera zuelako: nola sentitzen zen, nola sentitzen zuen bere burua herriaren baitan, zer gustatuko litzaiokeen eta nola ikusten duen elkarbizitza bere ikuspuntutik. Herritarrei aukera hori ematea oso garrantzitsua iruditzen zait. Eta entitate publiko horrek konpromisoa hartu beharko luke mailakatu dituen ekintza horiek ahalik eta azkarren egiteko. Irurtzuno kasuan, esaterako, hirugarren urtea izanen da partida baten barruan ekintza batzuk egiten direna.

16 urteko bidearen ondoren, bada- go kultura arteko bizikidetzarik?

B. Baiezko sendo bat esaten ez naiz ausartuko. Sakanako herri bakoitzak dauka bere errealitatea, gai hauekin ere bai. Eta elkarbizitza bere osotasunean ez baldin bada, kultur arteko elkarbizitzara hurbiltzen den bizikidetzatza bat badago hainbat herritan; beste batzuetan ez da

tamaina horretako lanketarik egin.

Sakanak zein indargune ditu?

B. Batetik, Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua dugula. Bestea bitartekaritza zerbitzua, heldu den urtean, atzera ere, martxan hasiko dena. Boluntariorik gorakada izan da, modu puntualean bada ere. Urtero gero eta gehiago dira. Gauza bat argi dago, boluntariorik ez balego ezingo litzateke zerbitzuko jarduna aurrera eramanez. Elkartasuna gero eta gehiago lantzen ari gara, aldarrikapenak ere bai. Alde batetik premia edo ahulgune bat da, baina, beste alde batetik, elkartze hori, giza eskubideen errespetuaren marko horretan aritzeak, horrek berak egiten du indargune bat. Azken urteetan Sakanako Mankomunitateko Euskara, Berdintasuna, Kirola eta Anitzartean zerbitzuak gero eta ekimen gehiago egiten ari gara elkarrekin. Euskara Zerbitzuarekin ere gero eta ekimen gehiago egiten ari gara. Premia handia da Sakanara bizitzera etortzen den edonori euskararen izatea jakinaraztea eta, gutxienez, haiengana gurea hurbiltzea. Eta sortu ditugun harrera mahaiak. Udalek etorri berriei egiten dieten erakunde harrerak beste indargune bat dira. Eta gauza bera egiten da ikastetxeetan. Gainera, ongi etorri horiek Nafarroako Gobernuak praktika

on gisa hartu ditu. Beste indargune bat koordinazioa da. Anitzarteanek Sakanan zerbitzu, erakunde eta pertsonekin duena, baina baita Sakanatik kanpo duena ere: Nafarroako Gobernuaren hainbat departamentu, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Zaska... Eskerrak eman nahi dizkiet hainbat zerbitzu eta ekimenei. Hau dena posible egin dute Sakanan bizi izan direnak, bizi direnak, eta etorriko direnei ere ongietorria noski. Denei, eskerrik asko.

Ahulguneak badaude?

B. Bai. Migrazio prozesuak berak. Bai Sakanan dagoena, herri batetik bestera, Sakanatik kanpora eta kanpotik Sakanara. Mugikortasun horrek denbora luzean jende berarekin harremana sendotzea zaildu egiten du kasu

"HERRITARREN PROPOSAMENETATIK ABIATUTA ANTOLATZEN DIRA EKIMEN GEHIENAK"

ARRAKALA DIGITALA ETA SOZIALA EGUNEROKOA ETA ELKARBIZITZA ZAILTZEN ARI DIRA"

batzuetan. Aldi berean, gaurko gizartean ematen ari den arrakala digitala eta soziala egunerokoa eta elkarbizitza baikorra lortzeko helburua zailtzen ari da. Horiek dira larrienak.

Migrazio ziklo horiek bitartekari zerbitzuari ere eragin diote, ezta?

B. Askok, bai. 2010ean hasi ginen. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin dugun koordinazio horretan, eta dirulaguntza batzuk medio, hizkuntza eta kultur bitartekari izateko pertsona bat kontratatzen genuen, urtean sei hilabetez bazen ere. Kontua da urtero pertsona desberdina zela, horrek urtero zerotik hastea suposatzen zuen. Dirulaguntzak bukatu zirenean eta zerbitzu hori gabe gelditu ginen. Mankomunitateak pertsona bat kontratatzeke apustua egin zuen 2016an. Lan arrazoiak direla eta, gurekin zegoen pertsona bizitza hobetzera joan zen, eta berriz gabe gelditu ginen. Heldu den urtean, atzera ere, zerbitzu horrekin hasiko gara. Espero dut luzaro gelditzea.

A. Sakanako Mankomunitatearen plantillan txertatu da lanpostu hori. 2012an hartutako erabakia jarraituta aurten erabakia da egonkortze hori ematea. Gero beste kontu bat da lan kontuen harira egotea edo ez, baina konpromisoa hori da.

Kulturartekotasuna, ogia bezala, egunero?

A. Egunero zaindu beharreko zerbait, bai.

B. Jakina. Zerbitzutik hizkerari indar handia ematen diogu, hitz egiteko moduari, hitzei eta esaten denari; zer esaten den eta nola esaten den. Badago esaera bat esaten duena hitzak haizeak eramaten dituela. Ez da horrela. Hitzak sendatu edo erail dezake. Zerbitzutik sendatzearen alde gaude. Ez da zurrumurruengatik bakarrik. Badakit zaila edo luzea dela Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua esatea. Baina hor mezu bat dago, egiten den guztian beti dago mezu bat. Eta mezu horrek izan nahi du ahalik eta baikorrena, errespetuzkoa, zerbitzutik bueltatzen diren baloreak bilduko dituen, hau da: aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazio eza. Eta hori dena euskaratik, Sakanara bizitza datozenei afektibotasun, hurbiltasun, sentimendu polit bat sortu nahi horretan. Eta horretan ere Sakanako komunikabideek zer egin duzue, eta espero dugu horrelaxe jarraitzea.



ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Osasuna

Hau da urteko azken alea eta azken kolaborazioa edo zutabea. Akabo urtea.

Normalean, halako egoeran, atzera begiratzeko joera izaten dugu, urtea nola joan den baloratzeko, eta heldu den urteari begira aldaketak edo hobekuntzak egiteko. Hedabideetan, behintzat, hala egiten dute, atzera begiratzearena, batez ere.

Munduan gauzak nola joan diren ikaragarria da. Ezer onik ez zait bururatzen, ziurrenik izan bada, baina ondokoekin alderatuta, huskeria.

Ikus dezagun. Ukrainaren eta Errusiaren artekoak bere horretan darrai, Israelek Gazako zerrendan eragindako erabateko suntsipena, Mediterraneo afrikar askorendako hilobia, gizonezkoon emakumeen aurkako etengabeko zapalkuntza, munduan zeharreko eskuin muturraren geldiezinezko gorakada... Eta, okerrera: epe laburrean, hauek eta antzekoak bideratzeko girorik ez dagoela edo mirariren bat beharko genukeela.

Gutako gehienok ere miraria beharko genuke gaurko egunean, amestutako loteriaren sariarekin gure etorkizuna aldatzeko, jakina baita gehienok zerbait irabazi baino galdu eginen dugula eta osasuna opatzearekin konformatu beharko dugula.

Osasunarekin konforme, eta ez da gutxi. Eta konforme daude izen bereko futboleko lehenengo mailako euskal deitura duen talde bakarraren zaleak edo jarraitzaileak urte honetan edo, hobe esanda, aurreko denboraldiaren akaberan taldeak egin zuenarekin. Ez zen miraria izan, baina gertu gelditu zen. Eta miraria da talde honen zaleak edo jarraitzaileak osasuntsu izatea taldeak eragiten dituen muturreko bizipenengatik.

Mirariak mirari eta zaleon osasunagatik, gora Osasuna eta osasuna guztiondako.

HARA ZER DIEN

Zaintza onak familian

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUA

Zaintza onak familian Oinarriko Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio eta familia programek urte hasieran egiten dugun familientzako sentsibilizazio kanpaina bat da. Egutegi formatua du eta Lehen Hezkuntzan seme-alabak dituzten familia guztiei etxera bidaltzen diegu; hain zuzen, 6 eta 11 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiengana. Kanpaina honekin, familian osasun emozionala garatzeko mesedegarriak diren alderdiak transmititzea izan dugu helburuetariko bat.

Egutegiak markatzen dituen hamabi orrietan, hamabi ideia luzatu nahi izan ditugu. Hausnarketarako tresna da egutegi hau. Gurasoentzako lagungarria eta familiaren harremanetan onuragarri izatea nahi dugu. Irakurri, hausnartu eta egutegian agertzen diren ideiak praktikan jartzera gonbidatzen duena.

Egutegian agertzen diren ideiak:

1- Seme-alabak baikortasunez begiratzen baditugu, nolabaiteko kidesasun sentimendua sortuko da, loturak eraikitzeke lagungarria.

2- Gure seme-alaben lagunak bagara, umezurtz utziko ditugu. Haien gurasoak izan gaitzen behar dute, ez besterik.

3- Entzutea da gure seme edo alabak bizi duenari protagonismoa ematea. Laguntzeko modurik onena da arretaz egitea, epairik edo baloraziorik gabe.

4- Gure seme-alaben hezkuntzari dagokionez, arauak eta mugak gurasoek edo tutoreek jarri behar dituzte, eta ez euren lagunen familiek.

5- Zenbat eta hobe izan etxean bizi garenon arteko harremana, orduan eta konfiantza handiagoa izango dute beren buruarengan, eta autoestimu hobe izango dute.

6- Seme-alabengan gure beldurak edo bizipen

negatiboak proiektatzen baditugu, ez diegu utziko haien nortasuna gara dezaten.

7- Familian lantzen ez ditugun gai guztiak beste toki batzuetan ikasiko dituzte, eta baliteke modu egokienean ez izatea. Ziurta dezagun gurekin ikasiko dituztela.

8- Mugak jartzerakoan, maitasunez eta haserrerik gabe jartzea komeni da.

9- Onar dituzagun gure seme-alaben emozioak epaitu gabe. Onartzeak ez du esan nahi ados gaudenik.

10- Gure seme-alaben hezkuntzan egin dezakegun inbertsiorik onena familian denbora pasatzea da. Familiari eskaintzen diogun denborak bere emaitzak ekarriko ditu etorkizunean.

11- Saia gaitzen zubiak eraikitzen harresiak eraiki ordez gure seme-alabak hezterakoan. Erraztasunak ematea, eta oztoporik ez jartzea.

12- Egiten ari diren horretan gure seme-alabei indarra ematen diegunean, haien gaitasuna aitortzen ari gaitzaizkie.

GUTUNA

Zama Doinuz Arindu IX

MIKEL MUNDIÑANO ETA KITZ MENDIOLA

ZDA LAN TALDEAREN IZENEAN

Urrunketa izan da urtetako zama, zama izugarria ostiralero, maitasunez betetako rafia poltsen bidaien joan etorriak. Istripuen erruleta izan da zama, eta zama izan dira berrogei minutuz etxekoa, laguna, ikusteko egindako kilometro amaigabeak.

Arindu da zama hori. Etxetik gertu daude Popi,

Unai, Luis, Asier eta gainerakoak; baina espetxean oraindik. Ez dugu urrunketarekin amaitu espetxean segitzeko. Zama egon badago. Salbuespena delako lege, eta etxerako bidea oztopatzea helburu.

Gure herriak jakin izan du zama arintzen. Jakingo ez du ba! Txarrenari zenbat aldiz atera diogu onena? Zenbat esku, zenbat beso, zenbat bizkar, elkartu diren urte guzti hauetan zamari eusteko! Modu batean zein bestean; etengabekoa izan

da gure herrian salbuespeneko espetxe politikaren zamari eusteko ahalegina.

Gure ekarpena izan da azken zortzi urtekoa. Auzolanean, mimoz eta maitasun handiarekin sortu eta mantendu den proiektua. Zama, doinu arintzeko ahalegina. Euskal Herriko hainbat eta hainbat musikaririk zama doinu arintzeko egin dutena. Eskerrik asko Esne Beltza, Oreak TX, Tximeleta, Ruper Ordorika, Vendetta, Naroa Gaintza, Tapia eta

Leturia, Su ta Gar, Zopilotes, La Chula Potra, Gozategi, Hutsun, Doctor Deseo, Fermin Valencia, Hesian, Gorra Urbizu, Anje Duhalde, Mikel Urdangarin, Niko Etxart, Ines Osinaga, Kutxi Romero, Petti, Gatibu, Ekiza, Irati Lasa, Juantxo Arakama, Fermin Muguruza, Des-kontrol, Pantxoa Carrere, Koban, Akelarre, Huntza, Afu, Itziar Ituño, Exprai, Porrotx, Anari, Esti-Mikel Markez, Zea Mays, Rotten XIII, Bad Sound, Haimar-Keu, Estitxu Pinatxo,

Juantxo Skalari, Eñaut Elorrieta, Zetak, Brigade Loco, Erramun Martikorena, Skabidean, Anita Parker, Bulego, Onki Xin, Zelanda, Amak, Unidad Alavesa, Modus Operandi, Kalakan, Jon Maia, Lorelei, Nogen, Kerobia, Olaia Inziarte, Iñigo ETS eta Tatxers.

Bederatzigarrena badator. Urtarrilaren 7an izango da. Etxarri Aranazko Kultur Etxean.

Zure laguntza behar dugu. Merez du. Zama Doinuz Arindu.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maider Gabirondo Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

GUTUNA

Sakanako Mankomunitatea, bailara egiten**IZASKUN BENGOETXEA DELGADO**

Gutun xume honen bitartez Sakanako Mankomunitateari aitortza egin nahi nioke. Nolabaiteko aldaketa edo eboluzioa sumatu dut Sakanako Mankomunitatean; nolabait esateko, Sakanako gizarteari zabaldu dela. Nire irudikoz, aldaketa oso positiboa da.

Sakanako Mankomunitatea beste administrazio zerbitzu baten gisa identifikatzen nuen, beharrezkoak ditugun ohiko zerbitzuak eskaintzen dituen: ura, zaborra, etxebizitzak eraberritzeko zerbitzua, kirola, euskara, berdintasuna, kulturartekotasuna... Azkenaldian, Mank-ek zenbait alorretan antolatutako ekitaldietan parte hartu dut -joskintza tailerra, Sakana Gertutik Zaindu jardunaldiak...-. Sakanako gizarte guztiaren parte hartzea sustatu denez, herri ezberdinetako sakandarrek hartu dugu parte halako ekitaldietan, eta horrek erraztu du gure artean elkar ezagutzea, parte hartzea, eta, finean, partekatzea. Horrek guztiak bailara berekoak sentitzera garamatza, bailara kontzientziatua hartzera. Halakoei esker, Sakana gara, sakandarrak.

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Guaixe fundazioko kideok oporretara goaz. Hurrengo zenbakia ilbeltzaren 12an izanen duzue esku artean.

Bizikleta ibilbideari bulkada 2024an

Horretarako, Sakanako Mankomunitateak 1.960.000 euroko inbertsioa egingen du. Erakundearen 2024ko aurrekontuaren %24,55 lan horretara bideratuko da; dirulaguntzen bidez finantzatuko ditu lanok

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko batzarrak 7.983.653 euroko aurrekontua onartu zuen abenduaren 14an egindako bilkuran. Ibarreko erakundearen aurrekontua onartzearen aldeko 14 boto (EH Bildu eta independentek) eta kontrako lau boto izan ziren (Geroa Bai). Mank-en inbertsio nagusia Sakanako bizikleta ibilbidea da, Irurtzun eta Ziordia artekoa, baina bide luzeago baten zati dena, Arabako Lautadan barna Gasteizeraino iritsiko baita. Horretarako, 1.960.000 euroko inbertsioa egingen du Mank-ek. Eta bi diru iturri lotuta ditu: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren eta Europako Next Generation EU funtsekoa.

Aitor Larraza Carrera presidentek azaldu duenez, "lanak egin ahal izateko tramitazioa 2024 urteko lehen erdia, edo gehiago, hartuko du. Desjabetzeak daude, eta lanen zuzendaritza eta lanak berak eman behar dira. Asmoa da obra 2024ko akaberarako hastea. Lanek urte erdia iraunen lukete". Berez, 2026rako lanak despedituta egon beharko luketela azaldu du. Larrazak gaineratu duenez, "Arabako Foru Aldundiko eta Arabako Lautadako ordezkariekin



Txirrindulariak Sakanako Bizikleta Egunean. ARTXIBOA

dagoeneko adostu dugu bizikleta ibilbideak batean eta bestean seinaleztapen forma eta itxura bera izanen duela, jarraipena izan dezan. Bestetik, marka propioa lantzea aztertzen ari gara".

Inbertsio gehiago

Ur Zerbitzuaren inbertsioei dagokionez, Urdalurko ur tratamendu plantan argindarra sortzeko turbina bat jartzea aurrekusi du Mank-ek. Azpiegitura hornitzera bideratuko da elektrizitate. 182.000 euro eskatuko du lan horrek. Horrekin

batera, ur biltegi batzuetan instalazio fotovoltaikoak jartzea aurrekusi du ibarreko erakundeak, haien argindar kontsumoa asetzeko eta langileek neguan joaten direnean argia izan dezaten. Bestetik, Urdalurtik Irurtzuna ura eramateko sarearen azken zatiaren (Etxarren-Irurtzun) proiektuaren eraginak izapidetzea ekarriko duen gasturako 50.000 euro daude. "Hel-du den urtean administrazio tramiteak egingen ditugu, eta lanak 2025ean", zehaztu du Larrazak. Eta jakinarazi duenez,

"Arakilek eta Irurtzunek Iribas-ko iturburuko ur kontzentsioa mantendu nahi dute. Horrela, batetik edo bestetik, ura bertututa izanen dute. Klima aldaketa testuinguru honetan ziurtatuta izan nahi dute ura".

Mank-ek Irurtzunen Akaborro industrialdearen eta herriaren arteko berdegunean garbigunea eraikiko du 380.000 euroekin. Irurtzuno garbigune horrek "Arbizu eta Altsasukoarekin batera, Sakanako gune garbien sarea osatuko luke, herritarrei biketa zerbitzu integrala eskainiz. Ez dezagun ahaztu herriz herri garbigune mugikor bat dugula eta Emauseko trapuketariekin ere hitzarmena sinatu dela etxeetan biketa egiteko", azaldu du Larrazak. Bestetik, 240.000 euroekin Hondakin Zerbitzurako kamioi berria eta edukiontzia erosi ditu Mank-ek. Larrazak jakinarazi duenez, "aurten 10 urte bete dira hondakin biketa sistema berria indarrean jarri zela. Orduetik hainbat zerbitzu indarrean jarri dira. Iruditzen zaigu une ona dela hartutako erabakiaren inguruan hausnartzeko, helburuak bete diren aztertzeko eta sistema hobetzeko neurriak pentsatzeko. Hondakin biketa zerbitzuaren egungo egoerari buruzko azterketa bat egin nahi dugu. Horretan toki entitateak eta sakandarrak partaide egin nahi ditugu, nahi dituzten ekarpenak egin ditzaten". Horretara 7.000 euro bideratuko ditu Mank-ek.

Larrazak gaineratu duenez, "Sakanako Garapen Agentziaren aurrekontua %9 igoko da 2024an. 375.726 euro izanen ditu". Azkenik, "Jaibus programaren aurrekontua handitu egin da, gaueko autobusak gehiagotan ibiliko baitira 2024an".

**2024AN
ZURE PUBLIZITATEA**

HEMEN





Zaintzaren aldeko ituna

Sakanako Zaintzen aldeko Ituna sinatu zuten 35 toki erakunde eta eragilek astelehenean. Zaintza eredu "bizi dugun errealitate eta momentura egokitu" nahi dute. Azken helburua, berriz, "benetako berdintasun eraginkorra lortzea da". Udalak, eragileak eta pertsonen premiak identifikatuko dituzte, eta urteroko neurriak zehaztuko dituzte.

Energia berriztagarrien proiekturako laguntza

Euroeskualdeak Sakanako Garapen Agentziak (SGA) gidatzen duen Enerxide proiektua diruz lagunduko du. Mugaz gaindiko energia komunitateak bulkatzea du xede, komunitate horiek aurre egin behar dieten oztopo nagusiak aintzat hartuko dituen metodologia eta tresna kaxetatik abiatuta. 149.790,50 eurotik 72.806 euro jasoko ditu SGAK.

Santutegiko ostatuko lanak udaberrian hasi nahi dituzte

Santutegiko arduradunek lanak 2025eko udaberriarako despedituta nahi dituzte. Bi solairutan 30 gelatako ostatua eta sotoari eranskina gehitu eta 35 oheko aterpea egin nahi dituzte, besteak beste. Lanek 3,3 milioiko aurrekontua dute. Mezenazgoa eta kofradia eta gotzaindegiaz aparte, gobernuak diruz laguntzeko eskaera egin dute.

DUELA 25 URTE...



Konponketak Olaztiko elizan

Hilabete zen zortzi boluntario olaztiarrez osatutako talde bat elizan lanean ari zela. Udaleko langileen laguntza ere bazuten. Haien egitekoa berogailu sistema berritzea zen. Izan ere, aspaldi jarria bazegoen ere, olaztiarren ustea zen haren beroa behar bezala ez zela baliatzen. Lanak aurrekontu handia zuenez, boluntarioen bidez egitea erabaki zen. Boluntario taldeak aitortu zuenez, "oso gustura" ari ziren lan hura egiten.

Klinikako langileak lan hitzarmena hobetu nahian

Lan hitzarmena berritzea, soldata %3,5 igotzea eta lanaldia 1.710 ordutik 1.651 ordura pasatzea aldarrikatzen dute. Halakorik egiten ez bada, ez dute baztertu ilbeltzean mobilizazioekin hastea

ALTSASU

Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoko enpresa batzordeak (4 LAB eta 1 ELA) jakinarazi duenez, lantokiko lan hitzarmen propioa joan zen urtearekin batera iraungi zen. Lan baldintza "prekarioak" dituztela iritzita, "plantillak eskatzen dugu kontuan har daitezela gure soldata eta lanaldiari buruzko eskaerak 2023ko hitzarmena sinatzera-koan". Jakinarazi dutenez, zuzendaritzarekin lan hitzarmena berritzen saiatu dira, "baina enpresako zuzendaritzak ez du gure proposamena onartzen. Langileok batzarra egin ondoren, gure egoeraren berri ematea erabaki dugu".

Langileek bi eskaera dituzte. Batetik, aurten soldata %3,5 igotzea. "urte arteko Kontsumo Prezioen Indizearen %6,4ko igoe-arekin hasi genuen 2023a. Aurteko urtean bezala, aurten ere eros ahalmen handia galdu dugu. Eta, horrek, are gehiago okertzen



Klinikako langileak protestan.

ditu plantillaren lan baldintza txarrak. Beraz, soldata %3,5 igotzea ez da gehiegizkoa". Soldata igoera atzera eraginez igotzea da, beraz, langileen eskaera.

Bestetik, langileen artean bi lan ordutegi daude, 1.651 ordu

egiten dituztenak eta 1.710 ordu egiten dituztenak. "Urteko lanaldia 1.651 ordu baino gehiago egiten dituzten langile guztien lanaldia murriztea oinarritzakoa eta beharrezkoa da". Azaldu dutenez, "sektore publikoan mota horretako klinikek eta zentroek 1.592 lan ordu egiten dituzte urtean". Lanaldiaren murrizketaz hurrengo lan hitzarmenetan hitz egiteko prest daude langileak. Haien ordezkariak eskatu dute "2024rako hitzarmen berrian lan egin dadila lan baldintza duinen alde, gure eskubideen alde eta gure gorputz eta adimen osasunaren alde".

Klinikako langileen ordezkariak "Euskal Herriko mugimendu feministak eta Euskal Herriko gehiengo sindikal zabalak azaroaren 30ean egindako greba orokorrarekin zaintzen alde hasitako mugimenduaren" baitan kokatu dute beraien aldarrikapena. Ilbeltzean mobilizazioak hastea ez dute baztertu.

Bertakoari balioa emateko, Sakanako Gida

Ibarreko komertzioen eta zerbitzuen gidarik osatu eta eguneratuena da Guaixe fundazioaren 0 km-ko gida

SAKANA

Hamargarren urtez, **Guaixe fundazioak Sakanako Gida** argitaratu du, 8.500 ale, aurki ibarreko etxebizitzetan banatuko direnak. Ibarrekoa, gertukoa, 0 km-ko gida da argitaratutakoa, bertakoari balioa aitortzen diona. Sakanako dendak, taberna, elkarte, enpresa eta zerbitzu publikoen informazioarekin batera, erabiltzaileei zerbitzurik onena eskaintzeko helburuz, informazio praktikoa ere badu: osasun etxe, udal edo bestelako erakunde




lazio Gidaren aleak, banatu aurretik.

telefonoak, egutegiak eta hainbat herritako mapak.

Paperezko liburuxka horretaz aparte, guaixe.eus/gida/ webgunean kontsultatu daitezke. Azken horren bidez hiru kliketan beharrezko helbidea, telefonoa, posta elektronikoa edo web orria jakiteko eta zuzenean harremanetan jartzeko aukera ematen dio erabiltzaileari. Gainera, erabilera errazteko, gremio edo herriaren araberrako bilaketak egiteko aukera ere dago. Gida digitala tokiko merkataritzaren eta zerbitzuen Sakanarako eta mundurako erakusleia da.

Tokiko establezimenduak kaleak bizi mantendu eta lanpostuak sortzeaz arduratzen dira. **Guaixe fundazioak** bere ekarpena egiten du horretan, BelexeGuaixe txartelarekin, 1.400 babesleei abantailak eskaintzen baitizkie.

EGUBERRIAK



ABENDUAK 22

IRURTZUN

18:00 Haurrek hiru erregeendako eskutitzak eramanen dituzte, elizako atarian. Kabalkada batzordea.

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

ZUHATZU

19:30 Afari-merendua egingen dute eta bitartean Olentzero menditik jaitsiko da eta haren esperoan egonen dira.

ABENDUAK 23

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

ETXEBERRI

18:15 Olentzero menditik oinez etorriko da, eta herriko txistulariek agurra egingen diote. Haurrekin egoteko eta eskutitzak eta solasaldiak izateko txokoa izanen da. Jarraian, gaztain erreak eta txokolate banaketa egonen da.

ABENDUAK 24

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

IRURTZUN

18:30 Olentzero Plazaolako zubitik iritsiko da, eta herriko kalejira egingen du.

ETXARREN

16:30 Olentzerori harrera egingen diote, plazan. Herriko kalejira egingen dute eta Txoripan dantza taldeak emanaldia emanen du. Ondoren, oparien banaketa izanen da.

SATRUSTEGI – HIRIBERRI

Arratsaldean, txokolatada egingen dute, Satrustegin.

18:30 Olentzero eta Mari Domingiri Satrustegin ongi etorria egingo zaie, eta Hiriberrira jaitsiko dira. Hiriberrin herriko buelta emanen dute eta Txitera agurra egingen dute. Ondoren, merendu txiki bat egingen dute.

IHABAR

18:30 Olentzerori ongi etorria egingen diote, plazan. Aurrekuak dantzatzeko diote, oparien banaketa egingen du ikazkinak, eta gaztain erreak janen dituzte.

IRAÑETA

18:00 Olentzero autobus geltokitik herrirantz abiatuko da. Bukieran, diru bilketa egingen dute datorren urtean ohiturarekin jarraitu ahal izateko. Ekimenaren antolatzaileek irintarrak baserritarrez janztera animatu dituzte.

UHARTE ARAKIL

10:30 Pazkoa Amores.

UAGaren eskutik.

18:00 Olentzero eta Mari Domingiren bila joanen dira, kalejira egingen dute herriko, eta frontoian harrera egingen zaie.

ARRUAZU

Olentzeroren etorrarekin batera, ohitura zahar bati eutsi nahi diote Arruazun: Eguzki zahar Eguzki berria. Herriko etxe guztietan egurrekin sua egitea nahi dute, herriarendako eta herritar guztiendako desio eta ametsik onenak eskatzeko asmoz. Su berritzaile eta garbitzaileak pizten zuten enbor horrekin, urteko gaurik luzeenean berotasuna eta argitasuna eskaintzen zien. Sua piztean urte berrirako desioak, ametsak eta abar eskatzen zituzten; eguzki berri baten jaiotza eta ziklo baten hastapena ospatzen zuten.

12:30–13:30 Herriko gazteak etxez-etez pasako dira egur bat jasotzeko.

17:00 Olentzero – Enborra ipuin kontakizuna izanen da, herriko etxean.

17:30 Egurtxoak margotzeko haurrendako tailerra izanen da, herriko etxean. Ondoren, etxez etxe bildutako egurrekin batera erreko dituzte.

18:30 Sua, futbol zelaian. Haurrek egindako egurtxoak erretzeko aukera izanen dute.

19:00 Olentzero Arnazbidetik helduko da eta trikitilariak lagunduta herriko kalejira egingen dute. Ondoren, opari banaketa egingen du, elkartean.

LIZARRAGA

18:00 Olentzero eta Mari Domingi Etxeturiko errebueltatik jaitsiko dira eta beraiekin batera kantuz herriari buelta emanen diote. Ekimenaren antolatzaileek karriz karriz buelta ematen denean etxetan kandila bat ateratzera animatu dituzte

lizarratarrak Su bat, etxe bat ohiturarekin bat eginez.

UNANU

16:30 Txokolatea egiteko soziedadean bilduko dira.

18:00 Mari Domingik eta Olentzerok karriz karriz itzulia egingen dute.

19:00 Txokolate jana izanen da.

19:30 Pazkuekin Amores etxe etxe egingen dute.

DORRAO

14:00 Umeekin bazkaria, soziedadean.

16:00 Etxez etxe kantatuz ariko dira.

18:00 Mari Domingi eta Olentzerori ongi etorria egingen diete.

19:00 Denak batera kantatuko dute, plazan.

19:05 Olentzero eta Mari Domingi agurtuko dituzte.

19:15 Merendua, soziedadean.

LAKUNTZA

11:30 Gabonetako marrazkiak bilduko dituzte, Biltokian.

18:30 Olentzerok eta Mari Domingik herriko kalejira egingen dute. Ondoren, opari banaketa egingen dute, Biltokian. Biltokik antolatuta.

ARBIZU

17:00 Herriko dantzariak emanaldia egingen dute, plazan.

18:00 Arbizu Kantuz-ek abestuko du.

18:30 Kalejiran Olentzero eta Mari Domingiri harrera egitera joanen dira. Ondoren, opari banaketa egingen dute Argi Bidea elkartean. Kintoek antolatuta.

ETXARRI ARANATZ

17:30 Olentzero eta Mari Domingiri harrera egingen zaie, Aldapasoro auzoan. Txokolatea banatuko dute.

Olentzeroren Lagunak antolatuta, Etxarri Aranatzko Udalaren laguntzarekin.

BAKAIKU

18:00 Olentzero eta Mari Domingiri harrera egingen zaie, plazan, eta txalaparta eta akordeoilariekin abestuko zaie. Ondoren, herriari buelta emanen zaio eta agurra plazan egingen dute. Bukatzeko, Bakarrekoetxea elkartean eskainitako auzatea izanen da, elkartean.

ITURMENDI

16:30 Gabon kantak abestuko dituzte, plazan.

17:30 Txokolate jana egingen dute, plazan.

18:30 Olentzerorekin kalejira egingen dute, plazatik.

20:00 Auzatea, frontoian.

20:30 Saskiaren zozketa.

URDIAIN

18:15 Mari Domingi eta Olentzero basotik jaitsiko dira antortxeroek eta astoa lagunduta, eta harrera Portuko kalen egingo zaie.

Txistulariekin herriko zehar kalejira egingen dute.

Plazan geldialdia egingen dute haurrek dantzatzeko.

Kalejira elizan bukatuko da eta Tintiniturri elkartekoek ardo beroa eta pikuak banatuko dituzte.

ALTSASU

11:15 Mari Domingi eta Olentzeroren topaketara joateko Fanfarrearekin, Altsasuko gaita jotzaileekin eta Musika Eskolarekin kalejira, Foru plazatik.

12:00 Eskutitzen bilketa, Foru plazan.

18:00 Olentzero eta Mari Domingi Aita Barandiaranera iritsiko dira. Txistulari, dantzari, fanfarre eta Altsasuko kantuzekin kalejira egingen dute. Ibilbidean, auzatea izanen da.

Ibilbidea: Idertzagain, Aita Barandiaran adinduen egoitzan geldialdia, Bakea kalea, Zumalakarregi plazan geldialdia, Bakea kalea, lortia kultur guneko plazan geldialdia, Solana kalea, Beti laten elkartean geldialdia, Solana kalea, Gartzia Ximenez kalea, Zubeztia kalea, Santa Krutz kalea eta Foru plazan.

19:30 Taloak, Gure Etxean.

AGAK antolatuta.

20:00 Olentzero eta Mari Domingiri agurra, Foru plazan.

OLAZI

18:30 Olentzero eta Mari Domingi Urbasatik etorriko dira eta kalejira egingen dute.

ZIORDIA

18:30 Olentzero eta Mari Domingi goiko iturrira iritsiko dira. Handik Anixeta tabernara joanen dira, eta Joxemi Marisek kanta bat abestuko du. Kalejiraren hurrengo geldialdia baselizan izanen da, eta bertan hiru haurrek agurra dantzatzeko diete. Eguraldi ona badago, ibilbidea gazteluan bukatuko da; eguraldi txarrekin, frontoian. Ibilbidean zehar Ziordiko Gazte Asanbladako lau kide, baserritarrez jantzita, bidelagun izanen dira, suziriak eskutan dituztela.

ABENDUAK 31

URTEZAHAR

IRAÑETA

00:30 *Ur goiena, ur barrena* kantatzera aterako dira.

DORRAO

Eguerdian, haurrak kazulekin herri guztia barna joaten dira Urte berri, Urte zar, Eitze berri, Eitze zar, Eitzien urdei koxkor bat, Plazan ardo goxoa, Gora eitze berri, Gora eitze zar kantatzen, eta kazulel zaharrak biltzen. Bukieran, eitzeak zintzilikatzen dituzte eta harrika txikitzen saiatzen dira. Eguerdian kazulekin zarata atera eta etxez etxe ariko dira.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

BIKAIN GARAJEA

Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta furgoneta saila

Urte berri on!

948 460 037 Arbizu

FLORES S.L.

Urte berri on!

Utzuabar Industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistolaria

« AURREKO ORRIAN HASTEN DA

Garai batean, urte zahar gauean, umeak etxe etxe ibiltzen ziren eta etxe bakoitzean zer edo zer ematen zuten umeendako (pikuak, gaztainak eta abar), eta bukatzean elizaraino joaten ziren eta bertan soka batekin jasotako eltze zahar guztiak lotzen zituzten eta zintzik jarrita harriak botatzen zituzten puskatu arte eta kantatzen zuten bitartean.

LIZARRAGABENGOA

00:15 *Ur goiena, ur barrena* kanta erronda eginen dute, Bordatxo elkartetik.

ETXARRI ARANATZ

00:30 Sareren *Ur goiena, ur barrena*, plazan.

02:00 Eliza paretik *Ur goiena, ur barrena* abestera aterako dira, eta herriari bueltan emanen diote kantatzen.

ITURMENDI

00:15-00:30 Kinto segizioa –kintoak, kinto zaharrak eta gazteak– Ur goiena kanta abestuko dute, eskean aritzen diren bitartean. Esker onez, moskatela eta pastak eskainiko dituzte.

URDIAIN

00:00 *Ur goiena, ur barrena* eginen dute, apaizaren etxean.

ALTSASU

01:00 Elkartasun brindisa, Altsasuko gaztetxean.

URTARRILAK 1

ALTSASU

19:00 Auzatea, Gure Etxean.

URTARRILAK 2

PAJEAK

OLAZTI

17:00 Hiru erregeen mandataria

kultur etxean izanen da, haurren gutunak biltzen.

URTARRILAK 3

PAJEAREN EGUNA

ALTSASU

18.30 Pajeen irteera, Zelanditik.

19:00 Hiru erregeen mandatariek haurren eskutitzak bilduko dituzte, lortia kultur guneko plazan.

URTARRILAK 5

ERREGEAK

IRURTZUN

18:30 Errege magoen desfilea

Machainen hasiko da eta ibilbidea elizan bukatuko da. Haurrek erregeekin egoteko aukera izanen dute.

Kabalkada batzordeak antolatuta.

UHARTE ARAKIL

11:30 Txokolate jana, plazan.

Ondoren, umeak fareen hotsa dariola zubirantz joko dute, eta pajeeekin bat egin eta herriari buelta emanen diote. Erregeen morroiak joan eginen dira.

18:30 Zerradotik errege kabalgata abiatuko da. Itxesia auzotik eta herrian barna ibili ondoren, segizioa bere ibilbidea elizan despidituko da.

LIZARRAGA

Goiz eguerdian, herriari fare hotsekin herriari buelta eman erregeei dei eginez.

18:00 Errege kabalgata elkartean hasiko da eta herriari buelta emanen diote. Ondoren, Dorraora abiatuko dira. Ondoren, afaria eginen dute elkartean.

DORRAO

Goizean, haurrak fareekin herrian zehar ariko dira.

19:30 Lizarragatik Dorraora joanen

URTARRILAK 1 Kirol probak eta mendi irteerak

IRURTZUN

09:00 Txokolate jana, Pikuxar elkartearen, eta Trinitatera igoko dira. Iratxo taldeak eta Pikuxarrek antolatuta.

09:00 Pikubestre zarpigarren herri lasterketa, Pikuxarrek antolatuta Irurtzango Udalaren eta hainbat babesleren laguntzarekin. Izena ematea QR bidez helduak 3 euro; haurrak doan. Irteera, Lizarra kaletik.

16:30 Umeak (0-6 urte), 150 metro eta gazteak (7-13 urte), 500 metro.

17:00 Beste guztiak, 4.200 metro.

UHARTE ARAKIL

V. San Silbestre trail, igerilekue-tan. Uharte Arakil – Beriaín km bertikalak antolatuta. Itxesi par-ketik.

15:30 Izen emateak. Helduak 2 euro, eta haurrak doan.

16:00 Lasterketaren hasiera: Benjaminak (6-9 urte), 400 metro.

16:10 Haurrak (10-13 urte), 800 metro

16:30 Kadeteak eta helduak (14 urtetik aurrera), 4.500 metro.

LAKUNTZA

09:00 Lakuntzeskoarrira mendi buelta, Zabalarte taldeak antolatuta, plazatik. Arangunen hamai-ketakoa.

ALTSASU

XLIV. San Silvestrea – Mario Lopezen Oroimenezkoa. Dantza-leku Sakana klubak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatuta. Izena ematea dantzalekusakana.com webgunean 5 euro eta bazkideak doan, abenduaren 30a baino lehen edo egunean bertan. Parte hartzaileen artean Katealdeko eta Conservas del Reinoko produktu sortak zozketatuko dira, eta Atletismo eskolako sarien zozketa eginen da. Haurren izena ematea egunean bertan, doan. Irteera udaletxea aurrean, helmuga Foru plazan.

18:00 Haurren lasterketa.

19:00 Helduen proba: zirkuituari hiru itzuli, 5 km.

OLAZTI

XX. San Silvestrea herri lasterketa. Sutegi klubak antolatuta. Frontoitik abiatuta.

17:30 Izena ematea.

18:00 Bost kategoria: txikiak (4 urte bitartean); benjaminak (5-7 urte), 300 metro; kimuak (8-11 urte), 600 metro; jubenilak (12-15 urte), zirkuituari itzuli bat, 1240 metro, eta helduak (16 urtetik gora), zirkuituari lau itzuli, 5 km inguru.

Bukaeran sari ematea eta salda beroa.

21:30 Herri afaria, soziedadean.

ARBIZU

18:30 Erregeen kabalgata udaletxe plazatik aterako da.

ETXARRI ARANATZ

19:00 Errege segizioa elizatik aterako da eta herriari buelta eman ondoren plazara iritsiko da.

BAKAIKU

18:30 Errege segizioa beheko basotik iritsiko da. Herrian barna kalejira egin ondoren, elizan opariak banatuko dituzte.

ITURMENDI

16:30 Haurrak fareekin herrian barna ariko dira.

17:30 Txokolate jana, plazan.
19:00 Errege segizioa beheko basotik iritsiko da eta Pilaralde kaletik herrira igoko dira; bertan harrera eginen diote. Herrian barna kalejiran ibiliko dira. Bi geldialdi eginen dituzte: mojen etxean bertan bizi direnak agurtzeko eta elizan Jesus haurra agurtzeko. Ibilbide frontoian amaituko da eta erregeek hitza hartuko dute, haurrekin egoteko aukera izanen dute, goxokiak banatuko dituzte eta auzatea izanen da.

ALTSASU

17:00 Fare joleak aterako dira, Foru plazatik.

18:00 Errege magoen kabalkada Sakana LH IIPetik aterako da.

Ibilbidea: Zelaixiki, Zelai, Isidoro Melero, San Juan, Burunda, Altzania, Erkuden, Gipuzkoa, Bakea kalea, Garzia Ximenez eta Foru plazara iristea.

19:00 Errege magoekin elkartzea eta adorazioa, Foru plazan.

Ibilbidearen amaiera: Santa Kruz kalea, Zubeztia, San Juan, Felix Arano eta Korazonistas ikastetxea.

OLAZTI

18:00 Erregeen kabalgata jubilatuetatik aterako da eta herrian barna ibiliko dira.

ZIORDIA

19:00 Errege segizioa Texeria kaletik aterako da, eta herrian barna ibiliko da, elizan bukatzeko. Haurrei goxokiak emanen dizkiete.

kaxeta
IRUDUONDIA

Zure opariak
hemen aurkituko dituzu!

fotoKopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

PORTUKO
elkartea

Urte berri on!
Enkargua aurretik egin

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988 | Urdiain: 948 563 763

OLAZTI/OLAZAGUTIAKO UDALA

**HIRIGINTZA JARDUKETA PLAN BEREZIA
HASIERA BATEZ ONARTUA**

Olazti / Olazagutiako Udalek Akitaren 246 zenbakidun ebazpenaren bitartez, 2023ko abenduaren 12koa, Hirigintza Jarduketa Plan Berezia onartu zuten, Olazti / Olazagutiako 5. poligonoko 593. Lurzarria), Cuesos La Vasco Navarra, SÁK bultzatuz.


Hiri Jarduketako Plan Berezia jendurean egonen da hila eta bidez, Nafarroan argitaratzen diren egunkarietan argitaratzen denetik hasita. Izapide hori Nafarroan argitaratzen diren egunkarietan eta Udai honen egotza elektronikoa inagari behariko da.

Jendureko erakustaldian, edozein pertsonak eztertu ahal izango du Hiri Jarduketako Plan Berezia, eta egoki diren alegazioak egin ahal izango dira. Horretarako, interesdunen eskura geratzen da izapidetako administrazio-espedita, jendureko erakustaldian eztertu ahal izan dezaten, jendureko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 10.00etatik 14.00etara.

Hasiera bateko onepeneren akordioa behin betiko izatera pasako da emetamazioak, ohamak edo inuzkin aurkatzeko. Horrelako egoeraren berri eta behin betiko testua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behariko dira.

Olazti / Olazagutiako, 2023ko abenduaren 15an.
Akitasak, Joseba Vizueti Ascargorta.


OLAZTI UDALA



Neguko denbora-pasak

Aurkitu al dituzu zenbakiak aurreko GUAIXE ASTEKARIETAN?
 Itsas itzazu hemen, egin argazkia eta igo www.guaixe.eus-era.
 Parte hartzen duten bazkideen artean *Astoaren putza!* liburuaren zozketa egingen dugu.

GURUTZE-GRAMA




Horizontalak

1. Sakana ... Harana, Sakanako errefuxiatuen aldeko taldea.
4. Amaiera sakandarrez.
7. *Ur goiena, ur barrena, urte ... egun ona* falta den hitza.
9. ... Gallo, Sakanako Mankomunitateko berdintasun teknikaria.
11. Etxarri Aranatzen txakurrekin batera egiten den lasterketa.
16. ... Doinuz Arindu, Etxarri Aranatzen eginen den elkartasun kontzertua.
17. Etxarri Aranatz eta Bakaiku artean egin duten korridore ekologikoa.
18. Mendebaldeen dagoen Sakanako herria.
21. San ... eguberrietan, Sakanako herri desberdinetan egiten den lasterketa.
22. ... Uribe, *Astoaren putza!* liburuaren argazkiko ilustratzailea.
23. ... Ezkurdia, argazkiko pilotaria.
24. *Garazi ...*, *Astoaren putza!* liburuaren argazkiko idazlea.
25. Ergoiena eta Arakil artean hegoaldean dagoen mendilerroa.

Bertikalak

2. Antso ..., 1194ean Irañetari foruak eman zizkion erregea.
3. Sakanako gimnasia erritmikoko taldea.
5. Altsasuko saskibaloia taldea.
6. Eneko ..., Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren sailkatua.
8. ... *Herri datorren urteko Korrikaren* leloa.
10. Itxaso ..., argazkiko Sexgune-ko sexologoa.
12. Lakuntzan urtarrean ospatzen diren festak.
13. ... Razkin, argazkiko Irurtzungo alkatea.
14. *Nafar ...* Nafarroako kultura Argentinan zabaldu zuteneko film dokumentala.
15. ... Prado, argazkiko Pole Sport kirolaria.
19. Altsasun Burunda ibaiarekin elkartzen den erreka.
20. 2024an 25 urte betetzen dituen irratia.



LABIRINTOA



Onegia da botatzeko



residuos de navarra
nafarroako hondakinak

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

Bazenekien...?

Jatetxe bakoitzak menuetatik datorren elikagai-xahuketa kopuru handia botatzen du. Kalkuluen arabera, 3.000 euro inguruko balioa duen kopurua doa urtero zuzenean zaborretara.

Elikagai bakoitza onegia da botatzeko!

NIK
ERAMANGO
DUT



Kanpainan parte hartzen
duten jatetxe batzuk.

**Eskatu zure
taperra jatetxean
eta ez sortu
elikagai-xahuketarik**



EGONGELAKO GAUZAK



akxioa

aliipsu

ntama

rpalnaa

aiamha

ilekbauas

andlaera

osfa

ioetnzat

xbsuaua

galanmora

ranlbaof

ARALARKO DAMA ZETAK

Aralarko dama

Aralarko dama eroriko bada

Nafar ① _____ izango da

② _____ busti du basoa

AMAZEYE

Etxejaunak ihesi ilargi ③ _____

AMAZEYE

Adarraren deia ta ④ _____ kantuak
debekatuta Nafarroan

haren izenean

⑤ _____ bat eraiki dute Egjarretan

Ahaztuko badira kantuak

arbasoen kontakizunak

Aralarko dama eroriko bada

Nafar lurretan izango da

Urederra ⑥ _____ tindatu da

AMAZEYE

Zezengorriaren zauri emaria

AMAZEYE

Basurdekumeak dira noraezean

Orbaizetako ⑦ _____

ta xoxoak hegan

Kanpaiak ⑧ _____ entzuten dira

Amezketan

Ahaztuko badira kantuak

arbasoen kontakizunak

Aralarko dama eroriko bada

Nafar lurretan izango da

Iruzki-sartzien galtzen den ⑨ _____

Hortan biyurtua

mendetan ta mendetan


siñistetu duun ⑩ _____

Ahaztuko badira kantuak

arbasoen kontakizunak

Aralarko dama eroriko bada

Nafar lurretan izango da




- ① denetan, lurretan, itsasoetan
- ② lhintzak, Urak, Euriak
- ③ berotan, argitan, berrian
- ④ lamien, emakumeen, igelen
- ⑤ Etxe, Eraikin, Baseliza
- ⑥ berdez, gorriz, horiz
- ⑦ karriketetan, herrian, eliza
- ⑧ ozen, baju, eder
- ⑨ orbela, itzela, epela
- ⑩ ezer, oro, guzia









Derbioen letra zopa

K G R I J F E I N I B E T I E R R E V G
 S H D W Z F A T E Z U R I K Q P P Z B O
 P C B U N O T S A Z U L O E T A J Q C I
 A Z M K S U T A N D I A B A R A T Z A K
 R C B P B A X G G A I G E D R A P A Z O
 R T K L H I A A U Z G D A E Q F H T B G
 I W Q T M O B S X N T H V K N U L T U A
 E S F R Y R O N I A M G P H P H J T F I
 L A V N F A L I A U Y S O H I W Z F C N
 A G X P Z S A T K I P U L A R J L O L A
 G A S H U U T R M Y P B F W U F A T E O
 U R E M A R X A A T X A N H E D R Z S N
 N M A R V E I M F C F S L D R W N I K O
 Q I D Z R P K E A I T N U K R A A A X Y
 P N O Y E A I W D P R J N F E L Z K J B
 D A Z I T T B C P B J H N A K Y K R S J
 H R F O Q V A I O Z X U N V A D A A E V
 R R G M K Q V L U V L J X W X M W M L Z
 D I G U N C H M O G H N V J J S Q G U O
 A S X J R J P V O R D O Z A B A L H X P




- Andiabaratz
- Arkaizto
- Arkuntia
- Arnazka
- Arriलगun
- Atxan
- Betierre
- Goikogaina
- Ibarrea
- Iruerreka
- Iruzeta
- Kipular
- Martinsagasti
- Olatezar
- Ordozabal
- Otsazuloeta
- Perusaroi
- Sagarminarri
- Txabolatxiki
- Zapardegia

Lotu marrazkiak



Non daude Sakanako zubiak?




Erantzunak urtarilaren 8an izanen dituzue eskuragarri
www.guaxe.eus-en

LOTU ESANAHI BEREKO HITZAK

1. Noizeskios Atalondoa
2. Baatzie Txantxangorri
3. Ustekaitzien Liztor
4. Kattalingorri Gustura
5. Otsein Potolo
6. Menddere Sagu
7. Arrokeiye Gero
8. Erlamin Baratzea
9. Liorra Joan
10. Txontxolongorri Harrokeria
11. Popolo Sudurra
12. Barrastadan Deitu
13. Ezkaatza Ustekabean
14. Xau Marigorringo
15. Fan Maindire
16. Aufetuik Bat-batean
17. Muxurketu Noiztik
18. Gio Lehorra
19. Suur Dardara
20. Dal-dal Lardaskatu

7 DESBERDINTASUNAK



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 22

IRAÑETA Ipuin kontaketa musikatua.

Amelie eta Xirrikituen jostunak ipuin kontakizun musikatuaren emanaldia.
18:00etan, udaletxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Lagun ikusezina.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Pala txapelketa.

Gure Pilota Sakanako XIX. Nesken Pala Txapelketaren finalak.
Kattagorriak: Izar – Naiara / Maialen – Nerea. Tximeletak: Natale – Katixa / Juna – Irati M. Pottokak: Uxue – izadi / Laida Iraia; Txitoak: Katixa - Amaia / Auritze - Izar.
18:30ean, Euskalerriri frontoian.

ALTSASU Kontzertuak.

2hotzskr eta DJ Salda dago taldeen kontzertuak, AGAbonak programaren barruan.
23:30ean, gaztetxean.

LARUNBATA 23

IRURTZUN Txapelketa.

Irurtzango IX. Frontenis Txapelketa. Izena ematea 35 euro bikoteko. Sariak: Txapeldunak, 800 euro eta txapela; txapeldunordeak, 400 euro; hirugarren sailkatuak, 150 euro. Egoitza nagusia: Irurtzango frontoia. Bigarren egoitzak eta partidak: Etxarrengo, Latasako, Aldazko,

Lakuntzako, Uharteko Arakilgo, Lekunberriko eta Arbizuko frontoia.

08:00 Partiden hasiera.

14:30 Bazkaltzeko etenaldia, Irurtzunen.

16:30 Partidak.

20:00 Finala.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota Sakanako XIX. Nesken Pala Txapelketaren finalak.
Euskalerriri frontoian.

10:00 Usoak: June C. - Arhane G. / Jare – Irati L.

Txitoak: Iraia - Laia / Nahia - Itzea

11:00 Lehenengo maila: Aizpeolea – Sarasibar / Mazizior – Larraza

Elite maila: Murillo – Eizmendi / Galdos – Ruiz de Azua

IHABAR Tailerra.

Josi zure motxila tailerra, Mirenek eta Idoiak antolatuta.

11:00etatik 13:30era, herri etxean.

LIZARRAGA Topaketa.

Gabon kanten entsegua.

17:00etan, eskoletan.

ALTSASU Gazte agenda.

Party zozketa.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Film dokumentala.

Punkaren Beste Aldea Perlata
Punk-Rock taldearen film

dokumentalaren emanaldia: Punkak ez ditu muga eta eredu sozialak ulertzen eta Jesusik hala erakusten du; Perlatak omenaldi bat eginen dio dokumental honen bidez, Arrasateko musika eszenari egin dion ekarpena kontatuz. EGAK antolatutako Gabonak gaztetxean egitarauaren barruan.
19:00etan, gaztetxean.

LAKUNTZA Kontzertua.

Mikel Urdangarinen eta bere bandaren eta Alvaro Olanoren kontzertua. Sarrerak 15 euro.
19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Kontzertua.

Trasteando taldearen Gabonetako kontzertu solidarioa: Cantos con encanto. Bildutakoa Aita Barandiaran adinduen egoitzarako izanen da.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 24

IHABAR Mendi irteera.

Maddalenera mendi irteera eta bermut autogestionatua. Imanolek antolatuta.
09:00etan, plazatik.

ASTEARTEA 26

IHABAR Festa.

San Esteban eguna. Plazan.
13:30 Haurren bazkaria.
14:30 Herri bazkaria.
17:30 Dantzaldia.

ALTSASU Liburu aurkezpena.

Astoaren putza! Lakuntzako Pertza kondairan oinarritutako Garazi Otsagabia eta Iker Uribe liburuen aurkezpena eta ipuin kontaketa.
12:00etan, liburutegian.

UHARTE ARAKIL Tailerra.

Haurrendako txalaparta tailerra.
17:00etan, udaletxean.

ASTEAZKENA 27

ZIORDIA Futbola.

Ziordiko Gabonetako Torneo. Parte hartzaileek eta familiek Iruñeko 365 jantokira solidarioa emateko jakiak eraman beharko dituzte. Amaieran, txokolate eta bizkotxo jana eta babesleen produktuen poltsak banatuko dituzte. Ziordiko Running taldeak eta Ziordiko Udalak antolatuta. Frontoian

10:00-13:40 Benjaminak: Arbizu, Ademar Maristas, Gazte

ZORION AGURRAK



Luis

Urte askuen, Luis!
Euskal Herriyen. Bertan, beye guña espetxien... ta gu beixe de hi egune ospatzen, azken 22 urtetan bezela... topa higatik, topa denengatik. Eutsi lagun!
Besarkada eta muxu haundi bet!

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Anatomía de una caída gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Astelehena 25: 19:00

La ermita gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 28: 19:00

Astelehena 1: 19:00

Berriak, Sutegi, Agurain 2016 eta Agurain 2017.
16:00–19:15 Alebinak: Sutegi, Goizueta, Arano eta Aralar Mendi.

IRURTZUN Futbola.

Euskaraz futboleak: haur eta guraso edo heldu arduradunaren arteko euskarazko partida bat; haur bakoitzak heldu batez lagunduta egon behar dute. Baldintza bakarria euskaraz egitea da. Aizpea euskara taldeak antolatutako Euskal Ekitaldiak egitarauaren barruan.

12:00etan, frontoian.



Ez gehiago itxaron

Eraman
nazazu

HANDIA

Esne gaina / Krema

ERTAINA

Esne gaina / Krema / Trufa

TXIKIA

Esne gaina / Krema / Trufa

TUNEKIN 1964 - GERAZKIN

Amaya

OKINDEGIA



ALTSASU

678 323 403

Iruña Hiribidea, 48

948 468 026

Zamalakarregi Plaza,3

670 389 017

San Juan Kalea, 50

948 562 185

Otdako Kristo Deuna, 19

UHARTE-ARAKIL

691 83 41 36

Mandikoa, 3

VITORIA-GASTEIZ

Postas, 33

945 148 368

Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ

948 461 560

Kale Nagusia, 4

OLAZTI

948 468 755

Orreaga Kalea, 1

ARAIA

945 314 572

Andoni Urrestarazu, 3

ETXARRI ARANATZ Txapelketa.
Mus txapelketa. Izena ematea: bikote bakoitzak 10 euro. EGAK antolatutako Gabonak gaztetxean egitarauaren barruan.
16:30ean, gaztetxean.

IRURTZUN Film dokumentala.
Arrastoan film dokumentalaren emanaldia, Josu Iztuetaren eskutik: 2018ko neguan lau lagunek Laponiara bidaiatu zuten, eta han egindako eski zeharkaldiaren kontakizuna egin zuten.
19:30ean, Pikuxar ganbaran.

ALTSASU Bakarrizketa.
Inixioren *Eguberri on* bakarrizketa saioa. Aurretik gonbidapena eskuratu behar da. 14 urtetik gorakoendako.
Ate irekiera 18:30ean eta 20:30ean; saioak, 19:30ean eta 21:00etan (sarrerak agortuta), Haritza tabernan.

IRURTZUN Zinema.
Neguko zinema: *Barbie* filmaren emanaldia. Larrazpi gazte elkaratek eta Irurtzungo Udalak antolatuta.
20:00etan, Larrazpin.

OSTEGUNA 28

IRURTZUN Parkea.
Gabonetako haur parkea.
17:00etatik 20:00etara, kiroldegian.

UHARTE ARAKIL Tailerra.
Haurrendako txalaparta tailerra.
17:00etan, udaletxean.

ALTSASU Areto futbola.
Areto futboleko 24 orduko txapelketa. F. S. Civer taldeak antolatuta.
Arratsaldean, kiroldegian.

ALTSASU Bakarrizketa.
Inixioren *Eguberri on* bakarrizketa saioa.
21:00etan (sarrerak agortuta), Haritza tabernan.

OSTIRALA 29

ALTSASU Ikuskizuna.
Viaje a Oz, el musical familiar teko ikuskizunaren emanaldia: Dorak

Ozera bidaia hasiko du, eta bertan benetan zerk egiten duen zoriotsu jakingo du. Trencadís Produccions konpainiaren lana. Sarrera gutxi gelditzen dira.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda.
Sexgunea sexologia zerbitzua.
17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Film dokumentala.
Inasari buruzko film dokumentalaren emanaldia. Kultur etxean.
18:00 Euskaraz. 19:30 Gaztelaniaz.

ARBIZU Ipuin kontaketa.
Irati Mugika ipuin kontalariaren saioa.
18:00etan, liburutegian.

IHABAR Tailerra.
Pizza tailerra. Maialenek antolatuta.
18:00etan, herri etxean.

ALTSASU Kontzentrazioa.
Azken ostirala: Konbiderako Giltzak, Sarek deitutako elkarretaratzea.
19:30ean, plazan.

IRURTZUN Kontzentrazioa.
Azken ostirala: Konbiderako Giltzak, Sarek deitutako elkarretaratzea.
20:00etan, San Martin kaleko 7. zenbakian.

LAKUNTZA Kontzentrazioa.
Azken ostirala: *Konponbiderako Giltzak*, Sarek deitutako elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Kontzentrazioa.
Azken ostirala: *Konponbiderako Giltzak*, Sarek deitutako elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Bertso afaria.
Bertso afaria: Saioa Alkaiza, Josu Sanjurjo eta Saats Karasatorre. Txartelak: 15 euro, Xapatero eta Leku Ona taberna. EGAK antolatutako Gabonak gaztetxean egitarauaren barruan.
21:00etan, gaztetxean.

LARUNBATA 30

LAKUNTZA Musika emanaldia.
Victor Mesanzaren musika emanaldia. Eroso eta erlaxatua egoteko esterilla, kojina, aulkia, tunbona eta abar eraman.
18:00etan, kultur etxean

ALTSASU Musika ikuskizuna.
Zirku soinua! Haize Berriak bandaren ikuskizuna: Felipe txikia zirku batean jaio da, baina ez du bere lekua aurkitzen. Tronboia da musika istorio honetako protagonista eta zirkuo bandako kideek lagunduko dute. Sarrerak 5 euro.
18:00etan, lortia kultur gunean.

IHABAR Tailerra.
Bajera apaintzeko tailerra, Maialenek antolatuta.
18:30ean, herri etxean.

ETXARRI ARANATZ Antzerkia.
Itziar Ituño eta Ramon Agirre antzezleek *Hobe ixilik* antzezlaren emanaldia: Bata zein bestea, biak ala biak, elkarri kontu kontari eta aldi berean kontraesanetan. Batez ere, fede txarreko baten aurrean. Gaur egun, edozer esanda ere, eztabaidarako gai bihurtzen da.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda.
Agur 2023 festa. Aldez aurretik izena eman, 3 eurotan.
22:00etik 01:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Txapelketa.
TriviAGA Altsasukoko Gazte Asanbladaren eta gaztetxearen inguruko galdera eta erantzun jokoa. AGAbonak egitarauaren barruan.
22:30ean, gaztetxean.

ASTEARTEA 2

IRURTZUN Zinema.
Gabonetako zinema euskaraz.
17:30ean, kultur etxean.

IHABAR Tailerra.
Gailera tailerra. Maialenek antolatuta.
18:00etan, herri etxean.



UTZITAKOA

UHARTE ARAKIL Koldo Arnanzen *Keinu bat iraganari* erakusketa.
Abenduaren 24ra arte. Larunbatetan 17:30etik 19:30era eta igandetan 11:30etik 13:30era. Udaletxean.



OLATZAGUTIA Sakanako Belenzaleen elkarteen Jaiotzen erakusketa.
Ilbeltzaren 7ra arte. Astelehenetik larunbatera 17:30etik 20:00etara eta igande eta jaiegunetan 13:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Elkarteen egoitzan.



ALTSASU Zientzialari ilustratuak ADItech-en zientzialarien ilustrazioz osatutako erakusketa.
Urtarrilaren 28ra. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna dagoenean, eta igandetan 18:00etatik 20:00etara. Lortia kultur guneko erakusketa aretoan.

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren berriztatze eta birgaitzea

ASTEAZKENA 3

UHARTE ARAKIL Tailerra.

Gabonen inguruko tailerra.
17:00etan, udaletxean.

ARBIZU Parkea eta jolasak.

Herriko puzgarriak eta 5 eta 8 urte bitarteko haurren jolasak.
17:00etan, kiroldegian.

ALTSASU Hitzaldia.

Buru osasunaren inguruko hitzaldia Sara Mariezkurrena psikologoarekin. AGAbonak egitarauaren barruan.
18:00etan, gaztetxean.

IRURTZUN Film laburrak.

Film laburren emanaldia Urko Mauduiten eskutik.
19:30ean, Pikuxar ganbaran.

IRURTZUN Zinema.

Neguko zinema: *Oppenheimer* filmaren emanaldia. Larrazpi gazte elkarteak eta Irurtzungo Udalak antolatuta.
20:00etan, Larrazpin.

OSTEGUNA 4

ARBIZU Parkea eta jolasak.

Herriko puzgarriak eta 9 eta 11 urte bitarteko haurren jolasak.
17:00etan, kiroldegian.

IHABAR Ipuin kontaketa.

Ipuin kontalari saioa, Izaskunek antolatuta.
17:30ean, herri etxean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Nerepe abeslariaren kontzertu akustikoa, eta saski eta loteen zoketa. EGAK antolatutako Gabonak gaztetxean egitarauaren barruan.
19:00etan, gaztetxean.

OSTIRALA 5

ALTSASU Kontzertuak.

Elkartasun gaua: Azken sustraiak eta S. B. taldeen kontzertuak. AGAbonak egitarauaren barruan.
00:00etan, gaztetxean.

LARUNBATA 6

ETXARRI ARANATZ Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleak taldearen mendi irteera: Beriain.
09:00etan, Larrañetan.

IGANDEA 7

ALTSASU Mendi irteera.

Altsasuko Mendigoizaleak taldearen mendi irteera: Bargainera igoera.
08:00etan, egoitzatik.

ALTSASU Kontzertua.

Haize Txikiak banda eta abesbatzaren kontzertua: Haize Txikiak banda, Sakanako Musikak eskoletako koruak eta Etxarri Aranazko Abesbatza Txikia, Mikel Emezabal zuzendaritzapean. Sarrera gutxi gelditzen dira, 3 eurotan.
17:30ean, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertu-ikuskitza.

IX. Zama doinu arindu jaialdia: Xiberoots taldeko Pette eta Jon; Koma taldeko Brigi eta Natxo; Iheskide; Eire; Ibil bedi; Zigor DZ; Maider Ansa; McOnak, eta Jon Barbarin. Etxarriko Sarek eta Senide eta Lagunak antolatuta. 15 euro.
17:00etan eta 19:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Bertso saioa.

Bertso desafioa. Pikuxarrek antolatutako Pikugabonak egitarauaren barruan.
18:30ean, Pikuxarren.

ASTELEHENA 8

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduen Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxe parean.

ASTEAZKENA 10

IRURTZUN Zinema.

Neguko zinema: Ali G anda suelto filmaren emanaldia. Larrazpi gazte elkarteak eta Irurtzungo Udalak antolatuta.
20:00etan, Larrazpin.

OSTIRALA 12

ALTSASU Kontzertua.

Kinbonbo Brass band taldearen kontzertua. AGAbonak egitarauaren barruan.

JAIOTZAK

- **Ane Mindaiano Fuertes**, abenduaren 9an Etxarri Aranatzen

HERIOTZAK

- **Cecilio Oyarbide Oyarbide**, abenduaren 17an Altsasun
- **Celestino Zubiria Ostiza**, abenduaren 14an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📌 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Saritutako guztiek, Sakanako Mankomunitateko ordezkariekin batera, talde argazkia egin zuten. UTZITAKOA

Sakanan kirolari mundialak ditugu

2022ko eta 2023ko Sakanako kirolari hoberekek euren aitortza jaso zuten Etxarri Aranazko kultur etxean egindako ekitaldian. Zortzi sari eta bi izendapen berezi banatu ziren, eta Sakanan zeinen kirolari onak ditugun jabetzeko balio izan zuen ekitaldiak

Maialen Larraza, Sakanako txapela janzteko prest

PALETA GOMA Asteburuan jokatuko dira XIX. Sakanako Pala Txapelketako finalak. Gaztetxoek finalak gaur, ostirala, erabakiko dira, eta maila nagusikoak bihar, larunbata. Maialen Larraza da maila goreneko ordezkari sakandar bakarra

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Iritsi da. Asteburuan jokatuko dira Sakanako Mankomunitateak Etxarri Aranazko Gure Pilota elkartearekin antolatutako XIX. Sakanako Pala Txapelketako finalak. Guztira zortzi final jokatuko dira: kategoria txikieta-ko sei final, eta maila nagusiko bi, eliteena eta lehen mailakoa.

Txapelketa azaroaren 24an hasi zen eta ordutik maila handiko pala partidetak gozatzeko aukera izan dute astebururo Etxarri Aranazko Euskalerriri frontoira hurbildu direnak, lehen mailan eta elite mailan Euskal Herriko palistarik onenetakoak lehiatu direlako.



Maialen Larraza eta Irati Igoa finalerdiak jokatu baino lehen, Euskalerriri frontoian.

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Ostiralean izan zen 2022 eta 2023 urteko Sakanako Kirolari Hoberenen Sari ematea, Etxarrin. Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak gidatutako saioan Aitor Larraza Mank-eko lehendakariak, Jose Ignacio Arangoa Irañetako alkateak, eta Etxarriko Arturo Carreño, Lakuntzako Sergio Goikoetxea eta Irañetako Susana Azkona zinegotziek banatu zituzten sariak. Argazkia ikusi besterik ez dago Sakanak, horren eremu txikia izateko, goi mailako zenbat kirolari dituen jabetzeko. Harrigarria da.

Sekulako kirolariak

18 urtez azpiko kirolari hobere-
nen saria TREC Hipikako Euro-
pako Txapelketan brontzezkoa
izan zen Mikel Zufiurre Estevez
zaldizko altsasuarrak eta Iruñea
Gares irristaketa maratoian
emakumezkoen lehen juniorra,
eta Behobian hirugarren ema-
kumea izandako Iratxe Lapuen-
te Perez ziordiarrek jaso zuten.

18-35 urte bitarteko mailan,
Espainiako Enduro Txapelketa
Senior B mailan bigarrenez ira-
bazi duen Markos Beraza Vitoria

motor gidari irintarrak eta lehen
mailara igotzeko borrokan dagoen
Osasuna taldeko Maitane Vilarño
Mendinueta jokalaririk onenak
jaso zuten oroigarria. 35 urtetik
gorako mailan, bi etxarriaren-
dako izan zen aitortza. Juan Luis
Maiza Begiristain duatletaren-
dako, lesio larria gaindituta
Europako 55 eta 59 urte bitarte-
ko Duetloia irabazteagatik eta
Munduko Txapelketan bosgarre-
na izateagatik; eta Graciela Pra-
do Garcia-Joverendako, Polonian
jokatutako Para Pole Sport Mun-
dialean anputatutako atalean
munduko txapelduna izateagatik.

Talde onenaren saria Espai-
niako Gimnasia Erritmikako
Txapelketan 147 talderen artean
29. sailkatutako Iskizako jubeni-
len taldeak jaso zuen, eta euska-
ra gehien bulkatzen duen taldea-
rena Altsasuko CBASK Saskiba-
loi taldeak. Bi aipamen berezi
egin ziren: Jesus Mari Arza
Bergerandiri, horrenbeste urtez
herri kirolak sustatzeagatik, eta
aurten erretiroa hartu duen Ima-
nol Erbiti Ollotxirindulariari.
Bere anaia Aitorrek jaso zuen
saria. Guztiek "oso eskertuta"
zeudela aitortu zuten.

Igoa bidean, Larraza aurrera

Aurreko astean jokatuako fina-
lerdietan, elite mailan Irati Igoa
etxarriarrak eta Amaia Irazus-
tabarrenak ezin izan zituzten
Galdos eta Ruiz de Azua mendean
hartu. Beraz, "pena handiz" Igoa
ezingo du etxeko finala jokatu.
Lehen mailako finalerdietan,
ordea, Maialen Larraza etxarri-
arrak eta Enara Maziziorrek Za-
balza eta Tolaretxipi bidean utzi
zituzten partida ikaragarrian.
Beraz, Maialen Larraza izango
da final handietan izango dugun
ordezkari sakandar bakarra.

Maila txiki-ko kategoria-
ren, tximeleten, pottoken eta txitoen
finalak gaur, ostirala, 18:30etik
aurrera jokatu dira, eta bihar,
larunbata, 10:00etatik aurrera
usoen eta txitoen finalak egongo
dira jokoan (ikus Guaixeko agen-
da). Ondoren, lehen mailako fi-
nalean Maziziorrek eta Larrazak
Aizpeolea eta Sarasibar izango
dituzte aurkari. Etxarriarren
animoak alde izango ditu Larra-
zak; ea, giroa lagun, txapela
janztea lortzen duen. Elite mai-
lako finalean Murillo-Eizmendi-
ren eta Galdos-Ruiz de Azuaren
artean erabakiko da txapela.



ASIER GALARZA IRIARTE
NAFARROAKO TXAPELDUNA

Nafarroako Banakako Paleta
Goma Txapelketako final
handia jokatu zuen Asier
Galarza Iriarte palista
irurtzundarrak (San Juan)
aurrera larunbatean
Universidad taldeko Perez
Galbeteren kontra. Finala
"oso estua eta gogorra"
izan zen, baina 25 eta 21
gailenduta, Banakako
txapelduna da. Ilbeltzean
lehen mailako Binakako
Nafarroako Txapelketa
jokatu du Andoni
Alberroekin. Galarzak
Iurtzungo IX. Frontenis
Txapelketa antolatu du bihar,
larunbata. 64 bikote
lehiatuko dira, eta zortzi
frontoietan jokatuko da.
Finala, 20:00etan, Iurtzunen.



23. Sakanako Xake Txapelketako sarituek talde argazkia egin zuten. MANK

Ekain Galarza bigarren 23. Sakanako Xake Txapelketan

XAKEA Aitor Esparza txapeldun burlatarrak puntu Erdiko aldea atera zion Galarza udiaindarrari

Maidet Betelu Ganboa OLAZTI Olaztik hartu zuen Mank-ek eta Zaldi Beltzak antolatutako 23. Sakanako Xake Txapelketa. Aitor Huarte Zozaia epaileak gidatu zuen Nafarroako 1900 ELO puntutik beherako txapelketa. "Guztia martxa onean doa. Gustura dabilta" azaldu zuen. Hogeita bat xakelarik hartu zuten parte, tartean 10 sakandarrek, eta emakume bakarrak. Txapelketa azkarra izan zen, 15 minutuko zortzi partidatan erabakitakoa.

Aitor Esparza burlatarrak eta Ekain Galarza urdiaindarrak lehia oso estua izan zuten, baina

azkenean Esparza gailendu zen (7 puntu), Galarzari puntu erdia aterata (6,5 p.). Maria Rodriguezek emakumeen saria jaso zuen (2,5 p.). 14 urtez azpiko onena Iker Iturrioz altsasuarra izan zen (4,5 p., bederatzigarren). Lehen sakandarren sariak Ismael Anton altsasuarrak (4 p., hamai-kagarren) eta Sebas Insausti arbizuarrak (4 p., hamabigarren) jaso zituzten. Koldo Flores 13. izan zen (4 p.), Mikel Castellano 14. (3,5 p.), Cesar Razkin 15. (3 p.), Juan A. Cerro 16. (3 p.), Jon Lizarraga 20., (2,5 p.) eta Javier Armendariz 21. (2 p.).



UTZITAKOA

Ehunka mendizale Aralarren

MENDIA Ehunka mendizale elkartu ziren igandean Aralarako santutegian, Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatutako 56. Mendigoizale Egunean. Joandakoak oroitu eta aspaldiko lagunekin biltzeko eguna izan zen. Federazioko presidente Martin Montañesek azaldu zuenez, "urtero jende gehiago" biltzen da egunean. Aurten federazioak ia 14.000 lizentzia izan ditu.


Boxeolari sakandarren progresio ederra

BOXEOA / KICK BOXINGA Kanku Gym gimnasioak ostiral gauean Altsasuko Burunda pilotalekuan antolatutako boxeo eta kick boxing gaubela. Manex Grados, Xuban Muñoz, Irati Altzelai eta Garat Flores borrokalaria sakandarrek maila ederra eskaini zuten

Maidet Betelu Ganboa ALTSASU Joxe Vicente Eguskiza ezagunaren Kanku Gym-ek boxeo eta kick boxing gaubela antolatu zuen ostiralean. Burunda frontoiak boxeo ring itxura hartu zuen, eta zale asko bildu zen jaialdiaz gozatzera. "Borrokalaria sakandar dezente parte hartzen genuenez, jendea bilduko zela espero genuen. Zaleek ongi erantzun zuen, eta gu gustura" azaldu du Irati Altzelai Karasatorre boxeolari etxarriarrak.

Boxeo profesionalean, Joseba Diez iruindarrak Londongo Ife Jarrett izan zuen aurkari (68 kg). Bigarren roundean Diezek Jarret K.O. utzi zuen, gibeletik eraso eginez. Ondoren Jarrettek Ruben izan zuen aurkari, baina Jarrettek amore eman, eta ez zuen borrokaldia bukatu.

Boxeo amateurrean zazpi borrokaldi jokatu ziren guztira, eta tartean lau sakandar lehiatu ziren. Manex Grados altsasuarrak Brayan Soto mendean hartu zuen (69 kg), eta Xuban Muñoz altsasuarrak ezin izan zuen Asier Maiza irabazi (70 kg). Irati Altzelai etxarriarrak Sofia Remon garaitu zuen (54 kg), eta Garat Flores etxarriarrak Renzo Regalado (65 kg). Jon Ferrerases Asier Amatriaini irabazi zion (62 kg), eta Daniel Eitok Alejandro Cis-



Irati Altzelai eta Manex Grados, euren garaipenak ospatzen. UTZITAKOAK

nerosi (71 kg). Kick boxing-ean Ekaitz Berradre, Guille Bonet eta Xeone neurtu ziren.

Irati Altzelairen errebantxa

Irati Altzelaik Sofia Remon "aurretik" ezagutzen zuen. "Etxarriko beilaldian elkarren kontra borrokatu genuen, eta berak irabazi ninduen. Altsasun, aldiz, nik irabazi nuen. Ez dakit espero nuen ala ez, baina sentsazio onak nituen. Borrokaldia ongi joan zen, eta oso pozik nago egindakoarekin". Hiru roundak jokatu eta bukatu zituzten, eta

puntuak kontuan hartuta gailendu zen etxarriarra. Altzelai Arbizuko Borroka Klubean trebatzen hasi zen, baina aurten Iruñeko Fitboxen entrenatzen du. "Arbizun kick boxinga lantzen da bereziki, eta nik boxeo gustuko dut. Horregatik aldatu nintzen".

Sakanan betidanik egon izan da boxeoarekiko zaletasuna, eta belaunaldi berriak ere batu dira. Egun, talde ederra dago lanean. "Arbizuko Borroka Klubean jende asko ari da trebatzen, eta bes-

Mazkiaran eta Laiglesia, goian

ZIKLO-KROSA Larunbatean Berako Ziklo-krosa jokatu zen, Nafarroako Txapelketa. Kadeteetan, gizonetan Sakana Group taldeko Cascanteko Erik Laiglesia hirugarren sailkatu zen, eta emakumeetan Quesos Albenizko Eider Mazkiaran altsasuarra (argazkian, eskuinean) zortzigarren. Biak lehen nafarrak izan zirenez, kadeteen Nafarroako ziklo-kros txapeldunak dira.



BURUNDA

Bederatzi jaialdi, hamaika talde

Urtarrilaren 7an, igandea, 'Zama doinuz arindu' kontzertu eta ikuskizuna izanen da Etxarriko kultur etxean. Besteak beste, Xiberoots taldeko Pettek eta Jonek, Komako Brigik eta Natxok, eta Iheskide, Eire, Ibil bedi eta McOnak taldeek parte hartuko dute

ETXARRI ARANATZ

Bederatzigarren urtez izango da c urtarrilaren 7an, igandea, Etxarri Aranazko kultur etxean. Etxarriko Sarek eta senide eta lagunek antolatzen duten kontzertu eta ikuskizunaren bi emanaldi izango dira; 17:00etan eta 19:30ean, eta antolakuntzatik esan dutenez, Euskal Herriko "abeslari ezagunek" urtetako gatazkak oraindik

duten "zama doinuz arintzeko" aukera emango diete. *Zama doinuz arindu* jaialdiaren helburua "euskal presoei aplikatzen zaien salbuespenezko legedia salatu eta ematen diren hainbat esku-bide urraketen zama arintzea izango da", baita "luzatu den" gatazkaren konponbideak ematearen aldeko mezua zabaltea ere.

2024ko *Zama Doinuz Arindu* kontzertuko kartela Xiberoots taldeko Pette eta Jon eta Koma taldeko Brigi eta Natxomusikariek, Iheskide, Eire, Ibil bedi eta McOnak taldeek eta Zigor DZK, Maider Ansa abeslariak eta Ion Barbarin aktoreak osatzen dute. Sarrerak 15 eurotan eros daitezke Etxarri Aranazko udaletxeko kultura bulegoan goizez, Etxarri Aranazko Udaleko webgunean eta Xapatero eta Leku Ona tabernetan.



BAZTERRETIK

ANNE AZKONA UNANUA

Gabonak eta kezkak

Iritsi dira turroiak, enpresako bazkari/afariak... eta iritsi da ere batzuen kezkak agertzeko unea. Kontsultan asko entzuten dira: "Orain arte nire elikadurarekin eta pisuarekin lortu dudana guztia, Gabonekin porrot". "Nutrizio jarraipenetara etortzeari utziko diot eta Gabonen ondoren itzuliko naiz berriz ere urtero bezala"... Baina, zer dira benetan Gabonak? Zenbat egun irauten dute?

Eguberrietan benetan bospasei egun dira, bazkari edo afari berezi bat dauden hitzorduak. Horrekin esan nahi dudana da Gabonek ez dutela hilabete eta erdi irauten. Egia da gehiegikeria egongo dela, baina bospasei bazkari edo afari berezi horietan kontzentratzen saia gaitezke, eta zer eta zenbat jaten eta edaten dugun jabetzen saiatu. Arkumea edo antxumea, zenbat aperitibo... Gainera, urtero daude Gabonak. Beraz, horietatik ihes egin beharrez, gure ohiko elikadura ohiturak Gabonetara egokitzen ikastea gomendatzen dizut.

Data hauetarako helburu errealistagoa izango den bat

finkatu ezazu. Batzuetan Gabonetako jaiak asmo handiko helburu batekin hasten ditugu, eta horrek zapuztuta sentitzea eta erruduntasun-sentimendua agertzea eragin dezake.

Arrakasta lortzea jaietan pisua mantentzea izan daiteke, besterik gabe.

Konpentsatzeak ez du funtzionatzen. "Orain ez dut ezer jango eta, horrela, ondoren nahi dudana guztia jango dut". AKATSA. Konpentsatzen baduzu, erraza da janari berezi horretara gosez iristea eta gehiago jatea. Eros itzazu soilik beharrezkoak diren Gabonetako gozokiak, eta ez gaitezela otsailean oraindik turroia jaten ibili. Sukaldean edota aulkian bazkariak eta konpainiaz gozatzen pasatzen diren egunak direnez, mugitzea funtsezkoa izango da.

Jaiak amaitzean nutrizionistak zure elikadura ohituretara ahalik eta lasterren itzultzen lagun zaitzake, eta, beraz, ezarri zenuten helburuari berriz heltzen. Gainera, urteko lehen jarraipen kontsulta zure aurrerapenak edo zailtasunak komentatzeko erabil dezakezu. Ez ezazu aukerarik galdu.

Amaitzeko, garrantzitsuena. GOZATU! Izurik edo errudun sentitu gabe.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Elkartasuna

Parte hartuko duten taldeek jaialdia "elkartasunarekin" erlazionatzen dute. McOnak taldeko kideek, esaterako, "elkartasuna, maitasuna, itxaropena eta abar" iradokitzen diela esan dute. Ibil bediko Ametsek "oraindik ere beharrezkoa den" elkartasun jaialdi bat dela esan du, "Euskal Herrian dauden beste batzuen antzera". Hiltzeko jaiotako beste emanaldi bat dela gaineratu du. Iheskide taldeko Gaizkak jaialdia "errepresaliatuei zein beraien senideei elkartasun eta maitasun keinu bat" dela esan du, eta Koma taldeko musikariek "euskal preso eta haien senideak laguntzeko kulturaren eta publikoaren arteko topaketa bat" dela esan dute.

Xiberoots taldeko kideek "musikaminak arintzen dituela" esaten dute: "Bost urte ETA desagertuz geroztik, euskal preso eta iheslarien etxera etortzeko baldintzak ez dira hor. Musikaz aipa dezagun eta erakuts dezagun gure anaitasuna azken presoa atera arte". Eire taldearendako jaialdiak "elkartasuna eta babesa" iradokitzen du: "Azken finean herri honek gatazka politikoaren ondorioak sufritu behar izan ditu urte luzeetan eta zoritxarrez batzuek gertuagotik sufritu behar izaten dute". Gaineratu dutenez, preso politikoak Euskal Herrira ekartzea "lortu bada ere", bidea eta borroka "luzea" geratzen da: "*Zama Doinuz Arindu* ekimenak borroka segidaren baliabideak



2023ko Zama Doinuz Arindu jaialdiaren talde argazkia. ARTXIBOA

lortzeaz gain, jendartea auziaz kontzientziatzea lortzen du".

Ekimen "eder" honekin nolabait "zorria edo arantza" zutela esan dute McOnak taldekoek, izan ere, 2022ko edizioan etortzekoak ziren, baina osasun arazoak tarteko, ezin izan zuten parte hartu. "Gure aletxo" jartzeko Ibil bediren modua dela esan du taldeko Ametsek, "ahal izatera, kolaboratzeko prest gaudelako". Musikaz elkartasuna adierazteko aukera izango dutelako, "eta horrek betetzen gaituelako", *Zama doinuz arindu* jaialdian parte hartzeko gonbidapenari baiezkoa eman zion Iheskidek. Maule eta Etxarri elkartuko ditu Xiberoots taldeak, "urrats guztiak garrantzitsuak dira. Libre baginen, baldintza azkar bat baietz baten emateko. Bestela, ezin ginen begira gelditu parte hartu gabe". Gonbidapenari baiezkoa emateko arrazoiei galdetuta, Eire taldeak "kontzientzia" sentitzen dutela esan du:

ZAMA DOINUZ ARINDU JAIALDIA ILBELTZAREN 7AN IZANEN DA, ETXARRI ARANATZEN

"Gonbidapena jaso genuenean ez genuen zalantzarik izan honen parte izan nahi genuela". Ekarpene "minimoena" ere egitea beraieradako garrantzitsu dela gaineratu dute. Komako taldekideek haien "harri-koskorra" eta elkartasuna adierazi nahi dutela esan dute.

Kontzertua

Formatu akustikoan bi abesti joko du McOnak taldeak. Ibil bedi ere disko berriko bi kantu joko dituzte, bi taldekideren artean. Iheskideren emanaldia "ezohikoa" izango dela esan du Gaizka taldekideak, "lehenengoa aldia da, eta azkena espero, formatu akustikoan joko duguna". Komako Brigik eta Natxok taldearen errepertorioko bi abesti joko dituzte gitarra akustikoekin. Xiberootsen emanaldia "simple" izango dela esan dute taldekideek: "Bi euskal kantore, egun horren tematikarekin bat egiten dutenak". "Gogotsu" ariko direla gaineratu dute. Eire taldea aretoetan jotzera ohituta ez dagoela esan dute taldekideek, "alde horretatik berezia izango da guretzat". Bi taldekideak ariko dira eszenatik, "eta espero dugu gure konplizitatea publikoari transmititu ahal izatea".



'Mainamikirri' liburuaren aurkezpena; Castillo Suarez eta Haize Berriak bandako kideak, zutik, Olatz Garde.

Mainamikirriren unibertsoa zabaltzen

Castillo Suarez idazleak, Jose Mari Morcillo 'Morkots' ilustratzaileak eta Olatz Aldasoro maketatzaileak egindako 'Mainamikirri' liburu berrargitaratu dute; Haize Berriak bandak zenbait sortzaileekin aurkeztuko duen ikuskizunaren harira

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Txikitan jan nahi ez zuenean "Mainamikirri bezala geldituko zara" esaten ziotela gogoratu du Castillo Suarez idazleak; berandu iristean ere "Mainamikirri" zarelara esaten zela esan du altsasuarrrak, "baina, egia esan, txikitan ez nuen Mainamikirriren ipuina ezagutzen". 2017. urtean Altsasuko herri ipuinean oinarritutako

Mainamikirri liburu kaleratu zuten; Suarezek istorioa idatzi zuen, Jose Mari Morcillo Morkots-ek ilustrazioak egin zituen eta Enara Insaustik maketatu zuen. "Mainamikirriren ipuinak bazeuden, egin dudana da testua egokitu eta moldatu". Izaskun Etxeberriak 1986an Ageda Zelaia altsasuarrari egindako grabazioan oinarritu da idazlea ipuina idaz-

teko. Abenduaren 17an, Arbizuko Olatzea hotelaren errotaren txokoan, *Mainamikirri* liburuaren berrargitalpena aurkeztu zuen idazle altsasuarrak. Herriko bi ipuin jasotzen ditu: *Erregearen alaba* eta *Katu beltzak*. Ilustrazioak Morkots-enak dira eta maketazio lana Olatz Aldasororena.

Mainamikirri Altsasuko sorgin bat zen, "sorginena", txikia, le-

kuetara beti berandu iristen zena eta belarretan jakintsua. Belaualdiz belaualdi pasa den ipuin bat da, eta ipuinaren bertsio asko daude. Suarezek haurrendako moldatutako ipuinak idatzi ditu, eta aurkezpenean liburuako bi ipuinak kontatu zituen, ilustrazioek lagunduta.

Erregearen alaba, agian, eza-gunena da: emakumeak errotan garbitzen ari direla, erregearen alabaren gaixotasuna sendatzeko erremedioa ematen du Mainamikirri, baina kuxkuxero batek entzuten du eta erregearen sariarekin gelditzen da; kuxkuxeroa errotara itzultzen da, eta harrapatzen duten edo ez jakiteko jendeak liburu irakurri beharko du. *Katu beltzak* herri ipuin bat da ere, eta idazleak Mainamikirriren pertsonaia sartu du tarteko. Istorioa ere leundu duela esan du, kontakizuna "tragikoagoa" zelako. Laburbilduz, familia batean haurrak gaixotzen dira, aita mandazaina da eta etxetik kanpo egon behar du, Mariansasiko eta Mainamikirri ama eta alabarekin elkartzen da, eta ez da fido. Ondoren, bi katu beltz, ukendua eta hitz magikoak agertzen dira istorioan.

Ikuskizuna

Arbizuko errotaren txokoan egindako aurkezpenean Haize Berriak bandako bost musikariek parte hartu zuten. Liburu Sakanako bandarekin sortzen ari diren "proiektu handi" batengatik berriz kaleratu dutela azaldu zuen Suarezek.

Olatz Garde bandako kideak hartu zuen hitza: "Aspaldi genuen ipuin batekin proiektu bat egiteko ideia, ipuin musikatu bat, eta kontuan hartuz Mainamikirri pertsonaia existitzen dela, Burunda aldeko pertsonaia erdi

mitologikoa dela, pentsatu genuen gure proiektu honekin lotzea oso ideia polita izan zitekeela". Izan ere, Haize Berriak bandak "hemengo, Sakanako, kultura" susztatzea du helburu ere.

"Azkenean, pentsatu genuen askoz politagoa egin genezakeela ez bakarrik musika baizik eta antzerkia, dantza eta abar uztartzen bagenuen". Hortaz, bandakoek Anne Perez de Azpeitia konpositoreari "ipuin hau bereziki" kontatzeko konposizio bat eskatu diote, eta, beste alde batetik, Eva Azpilikueta antzezle altsasuarrarekin, Suarez berekin eta Dantzarima dantza taldearekin ere harremanetan jarri dira. "Denak Sakanako emakumeak, eta proiektu honekin aurrera egiteko prest daude". Sortzaile guztiak emakumeak direnez, lana martxoaren 8aren Emakumearen egunaren harira aurkeztea pentsatu zuten, eta martxoaren 9an egingen dute, Iortia kultur gunean, "estreinu mundiala"; "beste guztia sorpresarako utziko dugu". Aukeragatik "eskerrak" luzatu zizkion Gardek, baita Valen Ormazabal Olatzeako kudeatzaileari eskerrak eman zizkieten ere Suarezek eta Gardek, errotan aurkezpena egiteko aukera emateagatik.

Mainamikirri inspirazio iturri izan da aurretik ere; 1997. urtean Aitzindari dantza taldeak sorgin altsasuarraren oinarritutako dantza ikuskizuna egin zuen, taldearen hamabosgarren urteurrenean.

MAINAMIKIRRI-N OINARRITUTAKO IKUSKIZUNA EGINEN DU HAIZE BERRIAK BANDAK

Handitzen, handitzen, banda txikia, hasi da handitzen

Haize Txikiak banda datozen emanaldietarako prestatzen ari da; oraingoan abesbatzarekin

ALTSASU

Abenduaren 23an eta 26tik 29ra, Haize Txikiak bandako musikariek ilbeltzaren 7an (17:30ean) Altsasuko Iortia kultur gunean (dagoeneko sarrerak agortu dira) eta 21ean Lakuntzako plazan,

San Saastin festen barruan, emanen dituzten emanaldiak prestatzeko topaketa egingen dute. Lehenengo aldiz abesbatza txikiek parte hartuko dute ere.

2022ko uda atarian sortu zuten Sakanako musika eskolen eta

Haize Berriak bandaren arteko zubia izateko sortu zen proiektua, eta dagoeneko errotu da. Urtean bi topaketa egiten dituzte, uda hasieran eta abenduko oporretan.

Oraingoan 108 musikari gazte bilduko dira, 50 bat bandako kideak izanen dira, eta lehenengo aldiz Irurtzango, Lakuntzako, Etxarri Aranazko eta Altsasuko musika eskoletako koruetako eta Etxarri Aranazko Abesbatza txikiaren abeslariak. Mikel Emeabal izanen da zuzendaria.



Haize Txikiak udako entseguan. ARTXIBOA

Errepertorioa

Haize Txikiak bandak *Jurassic Park*, *Forrest Gump* eta *Indiana Jones* filmetako abestiak, *Ammerland*, *The best of Mancini* eta *La greve des musiciens* abestiak joko ditu, eta abesbatzarekin batera abesti herrikoiak joko dituzte: Txomin Artolaren *Aberriaren mugak*, Oskorriren *Euskal Herrian Euskaraz* eta Mikel Laboaren *Txoria txori*. Zuzendariak hiru lan hauen moldaketak egin ditu.



Jose Luis Inda eta Pakita Arruabarrena bikotea hasieratik da GUAIXEko bazkide. UTZITAKOA

"Guaixe gustura jasotzen dugu; hasieratik, bazkide"

GUAIXEk 29 urte bete zituen abenduaren 20an. Jose Luis Inda eta Pakita Arruabarrena senar-emazteak hasieratik dira bazkide. Arruabarrenak GUAIXE sustatzeko garrantzia nabarmendu du, eta bazkide egitera animatu ditu sakandarrak



Maidier Betelu Ganboa IRURTZUN

1 Guaixe Fundazioko bazkide beteranoenen zerrendan zaudete. Zergatik egin zineten bazkide?

Hemen, Sakanan, ez zegoen halako komunikabiderik, gure bailarako albisteen berri eman go zuenik, eta egitasmo oso polita iruditu zitzaigun. Eta, gainera, euskaraz. Garai haietan Irurtzunen ez zen euskara gehiegi entzuten, orduan hasi zen euskararen gaia pixka bat mugitzen. Beraz, GUAIXE sortu eta nola ez ginen bertako bazkide egingo?

2 Aizpea Euskara Taldeak lan handia egin du euskara sustatzeko. Zuek eta zuen ingurukoek, iratxo elkartean elkartzen zinetenek, baita ere. Orduko Irurtzunek eta gaur egungoak, ez dute zerikusirik. Bai, hala da. Euskara bulkatzeko lan handia egin da Irurtzunen urte askoz, eta fruitua nabaria da. Aizpeako kidea ere izan naiz, eta antolatutakoetan parte hartu izan dugu beti.

3 29 urte etxean GUAIXE jasotzen. Gustura jasotzen al duzue? Sakana guztian gertatutako kontuez enteratzen gara, eta gustura hartzen dugu. Etxarriarra izanik, gure aldeko berriak begiratzen ditut, baina oro har albiste guztiak begiratzen ditut.

4 Senarra, berez, ez da euskalduna. GUAIXE irakurtzen al du? Nik baino gehiago ulertzen du (kar-kar). Berak ere GUAIXE irakurtzen du, gustura. Semea, Gorka, eta biok euskaraz entzutean gutxika euskara ulertzen joan da, eta euskara ikasten ere egon zen urtebete inguru.

5 GUAIXE ez da soilik paperezko aldizkaria. BELEIXE IRRATIA du, Guaixe.eus webgunea, Sare Sozialak... Interneten sartzan al zara albisteak irakurtzera? Ez, ni teknologia horietan ez naiz oso iaioa. Nahiago dut paperezko GUAIXE irakurtzea.

6 Zer gustatzen zaizu gehien GUAIXEtik? Zein sekzio edo atal? Guztia. Elkarrizketak, erreportajeak, gizartea, kirola, kultura... gai guztietan dut interesa, Sakanako jendeari buruzko albisteak

direlako, hemen gertatzen diren gauzak. Denetatik ulertzen dut pixka bat, eta guztiari erreparatzen diot.

7 Zerbait faltan botatzen al duzu? Horrela, bat-batean... ez zait ezer burura etortzen. Esango nuke ongi dagoela dagoen bezala.

8 Urte hauetan guztietan GUAIXE izan dituen aldaketak (hilabetezko astekarira pasatzea, maketa eta diseinu aldaketak, idazteko moldean aldaketak, Guaixe online, Sare Sozialak...) ongi etorri direla deritzozu? GUAIXE garai berrietara ongi egokitu dela? Bai, zalantzarik gabe.

9 GUAIXE FUNDAZIOAREN BELEIXE IRRATIAK (FM 107.3) Etxarri Aranatzan du egoitza. Entzulea zara? Lehen bai, asko entzuten nuen BELEIXE, eta orain ere, baina ez horrenbeste. Sakanako albisteak entzuteko aukera polita eskaintzen du.

10 GUAIXEko bazkideek, Sakanan euskarazko toki komunikabideak sustatzeaz aparte, beste onura batzuk dituzte: Guaixe-Beleixe txartelarekin beharpenak eta hobariak Sakanako zenbait komertziotan, eta errenta aitortpenen desgrabatzea. GUAIXEkoa urtero 60 euroko kuota da, baina Nafarroako Gobernuak %80an desgrabatzen duenez, finean urtero 12 euro ordaintzea da.

Bai, oso positiboa da, alde guztietatik begiratuta: etxean Sakanako albisteak jasotzen ditugu, euskaraz, kalitatezko medio batean; txartelarekin onurak ditugu, errenta aitortpenen desgrabatzen du, eta euskara sustatzen dugu.

11 Sakandarrak GUAIXE FUNDAZIOko bazkide egitera animatu al zenituzke? Jakina! Oraindik GUAIXEko bazkide ez direnak, anima daitzela. Ematen dutena baino gehiago jasoko dute bueltan. Hasieratik gara bazkide, eta hala jarraituko dugu.

"GUAIXE FUNDAZIOKO BAZKIDE IZATEAK MEREZI DU. ONURA ASKO DITU"
P. ARRUABARRENA